6

**Blitz
Eskolako
Liburutegiko
Bilduma**
Sorta berdea




# PROIEKTU DOKUMENTAL INTEGRATUAK

ROSA PIQUÍN CANCIO

Nafarroako Gobernua

PDI

Izenburua: Proiektu dokumental integratuak

Egilea: Rosa Piquín Cancio

© Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

1. edizioa (2012)

Diseinu grafikoa: Asís Bastida

Bultzatzailea eta banatzailea:
Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa
Navas de Tolosa kalea, 21
31002 IRUÑA
Telefonoa: 848 427 121
Faxa: 848 427 123
fondo.publicaciones@navarra.es
www.navarra.es/publicaciones

# PROIEKTU DOKUMENTAL INTEGRATUAK

ROSA PIQUÍN CANCIO

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua


PDI

AURKEZPENA

Proiektu dokumental integratuak (PDI) jarduerak dira, zeinetan ikasleek gai edo problema zehatz baten gainean ikerketa egin ez ezik, informazioa bilatzeko edo lan intelektuala egiteko mekanismoekin ere ohitu egiten den, hartarako eskola liburutegiko dokumentu baliabideak erabiliz.

Proiektuak dira, zeren metodologia aktibo eta elkarlanezko baten bidez garatzen baitira, oinarrizko gaitasunak garatzea helburu. Dokumentalak dira zeren gure eskola liburutegietan altxortuta dauden dokumentuak oinarri harturik gure neska-mutilei laguntzen baitiete beren ezagumena eraikitzen, sortzaileak eta ulertzen dutena komunikatzeko gauza izan daitezen. Azkenik, integratuak dira zeren, horrez gain, bide ematen baitute hainbat diziplinatako ikasketak integratzeko eta eskolako mundua eguneroko bizitzara hurbiltzeko balio baitute.

Blitz sail berdeko zenbaki berri honekin gure asmoa da beste ekarpen bat egitea irakasleek behar dituzten tresnak izan ditzaten beren ikasleekin bai liburutegian eta bai handik kanpora ere lan egiteko. Gure ezagutzaren helburuak finkatu, informazio iturriak bilatu, edukien artetik hautatu, eduki horiek landu eta aditzera ematea errazagoa izanen da laguntza bide honekin. Ikasten ikastea da gakoa, azken buruan; hau da, ikasketa baliozkoa bereganatzea gaurko munduaren erronkei erantzun eta informazioa ezagutza bihurtzeko.

**José Iribas Sánchez de Boado**
Hezkuntza Kontsailaria

# PROIEKTU DOKUMENTAL INTEGRATUAK


07 **1. Eskola liburutegia: proiektu dokumental integratuen esparrua**

11 **1.** Zer dira proiektu dokumental integratuak?
12 **2.** Lege esparrua
12 **3.** Programa instituzionalak
13 **4.** Lehen kapitulu honi buruzko ezinbesteko kontsultak
13 **5.** Sakontzeko irakurgaiak

15 **2. Proiektuak**

17 **1.** Proiektuen sailkapena
17 **2.** Proiektu motak
18 **3.** Proiektuen bidezko ikaskuntzaren ezaugarriak
19 **4.** Proiektuaren urratsak
21 **5.** Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza ereduaren onurak
25 **6.** Irakurketa proiektuak
27 **7.** Ezinbesteko kontsultak

29 **3. Dokumentalak eta Alfabetatzea Informazioan (ALFIN)**

30 **Dokumentalak**
30 1. Aitzingogoetak
33 2. Eskola liburutegietako baliabide dokumentalak
35 3. Arau bibliografikoak

36 **Alfabetatzea informazioan (ALFIN)**
36 1. ALFIN logoak zer adierazten du?
38 2. ALFINen nazioarteko proposamenak eta ereduak
40 3. Zergatik da beharrezko ALFINen hezitzea?
41 4. Ezinbesteko kontsulta
43 5. Beste bibliografia bat

45 **4. Integratuak**

46 1. Eskola liburutegia eta curriculum integrazioa
47 2. Proiektu dokumental integratuen izateko arrazoia
49 3. Nola egin proiektu dokumental integratuak
51 4. Proiektuak prestatzeko iradokizunak
53 5. Proiektu dokumental integratu batzuekiko lotura

55 **5. Tresna digitalak proiektu dokumental integratuen garapenean**

57 1. WebQuest
61 2. MiniQuest
63 3. Ezinbesteko kontsultak

66 **Eranskinak**

67 1. Haur Hezkuntzako adibidea: Afrikako animaliak

71 2. Lehen Hezkuntzako lehen zikloko adibidea: Degas, Tchaikovski eta balleta. Gaitasunak Informazioan

86 3. DBHko 2. mailako adibidea: espainieraren historia denbora digitaleko linea baten bitartez emana

93 4. DBHko 4. mailako adibidea: Orfeo eta Euridizeren mitoa

# 1.

## Eskola liburutegia: proiektu dokumental integratuen esparrua

IFLA-UNESCO-ren Adierazpena eta Jarraibideak argitaratu zirenetik adostasun gero eta handiagoa dago eskola liburutegiaren garrantziari buruz, jarduera eta zerbitzu pedagogikoen diziplina anitzeko gunea baita, irakas-ikaskuntza jardueren euskarri izan behar duena.

> Eskola liburutegiak informazioa eta ideiak ematen ditu, funtsezkoak direnak, informazioan eta ezagueran gero eta gehiago oinarritzen den gure gizarte honetan era arrakastatsuan funtzionatu ahal izateko. Eskola liburutegiak bizi bitarteko ikaskuntza trebeziak garatzen laguntzen die ikasleei, eta orobat imaginazioa lantzen, era horretan hiritar zentzudun gisa bizi daitezen.[1]

Eskola liburutegia, irakaskuntza, ikaskuntza eta irakurketa arloko baliabideen gune gisa ulerturik (CREA +L), [II+I BG] gune neuralgikoa da ikasleen ikaskuntza prozesuan eta irakasleriaren lanbide berrikuntzan; horregatixe da beharrezkoa eskola liburutegiaren erabateko integrazioa hezkuntza praktikan eta ikastetxeetako egunerokotasunean. Indarrezko ideia da, ezinbestekoa irakaskuntzarako, ikaskuntzarako eta informazio munduan, irakurketan, kulturan eta desberdintasunen konpentsazioan sarbidea izateko.

Iragan mendeko 90eko hamarkadan liburutegi anitzek aldaketa kualitatibo garrantzizkoak izan dituzte hezkuntza prozesuaren osagai bihurtuz, zeinean irakurketa "ezagueraren gako magikoa"[2] baita.

CREA+L akronimoko L-ak irakurketa literarioa adierazi nahi du (garapen pertsonal, afektibo, literario, artistiko eta barneko gozamenaren konotazio garrantzitsuak berekin dakartzana), baina baita honako hau ere: "testu mota ugari ulertu eta interpretatzeko gaitasuna, agertzen direneko testuinguruarekin lotuz, ikasleak gai izan daitezen informazioa eskuratzeko, idazkien asmoak hausnartzeko, egileek beren mezuak igorri eta irakurleengan eragina izate aldera erabili dituzten baliabideak ezagutzeko eta testuaren egituran eta estiloan oinarrituz esanahiak ateratzeko".[3]

Tipologia desberdineko testuekin (literario, zabalkundeko, zientzia arloko, didaktiko...), edo euskarri desberdinekin (liburu, ikus-entzunezko, informatiko…) curriculumaren hainbat arlotan egiten den lana eta, orobat, gai bakoitzari dago-

---

[1] UNESCO/ IFLA, *Directrices De La IFLA/ UNESCO para la Biblioteca Escolar*, http://www.ifla.org/VII/s11/pubs/sguide02-s.pdf [2008ko irailaren 15]

[2] Millán, J. A., *La lectura y la sociedad del conocimiento,* Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua, 2008.

[3] *Irakurketan inplikatutako gaitasunak hobetzeko proiektua*, Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua, 2008. linean: http://www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/pdf/planlectura2008.pdf

kion hiztegi berariazkoaren ulermena, lagungarri dira ezaguerari eta hazkuntza pertsonalarari bidea irekitzeko. Ez da alferrikakoa kontzeptuak eta haien arteko loturak testuen bitartez ulertzera eta arrazoitzera bideratzen den denbora, testuok zientifikoak nahiz didaktikoak izanik ere (entziklopediak, monografiak, web-orriak…), bada, jarduera horrek gaitasuna ematen baitu analizatzeko, loturak egiteko, kontestualizatzeko, komunikatzeko, etab., ezinbestekoak guztiak mundu teknifikatu eta aldakor honetan bizi ahal izateko. Gure ikasleriaren etorkizuneko bizitzan, edozein jardueratan, gaitasun kritikoa eta erlazionala sistematikoki erabili beharra izanen dute.

Liburutegia ikaskuntzarako baliabide gune bilakatzeak ikastokian eta eskura dauden materialetan aldaketak egin beharra ekartzeaz gainera, eskola liburutegiaren bestelako kontzeptu bat ere sorrarazten du, non informazio eguneratua baitago eta zerbitzu ugari komunitatearen esku. CREA+L / eskola liburutegiak informazio iturriak eskaintzen laguntzeaz gainera hezkuntza plangintza ere babesten du, materiale berriak hautatzeko prozesuan irakasle guztien partaidetza sustatzen baitu, beharrizan pedagogikoetarako baliabide egokienak aukeratuz.

PISA ikerlanetan, ikasleek darabiltzaten baliabideek (OCDE, 2003) zerikusi handiagoa dute egoera ekonomiko, sozial eta kulturalarekin aztertzen diren beste edozein alderdirekin baino. “Horrek esan nahiko du ikasle desabantailatuenek ez dituztela eskola baliabideak egoera ekonomiko, sozial eta kultural erosoagoetatik heldu diren ikasleek adina erabiltzen.” Testuinguru horretan are eta indar handiagoa hartzen du eskola liburutegiko baliabideekin lan egiteak.

Eskola liburutegiaren eginkizuna zuzenean lotzen da curriculumaren garapenarekin, eskolan gauzatzen diren jarduera guztiekin eta ikasleen premiekin, bereziki informazioari dagokionean, irakas-ikaskuntza prozesua honelaxe ulertuz: “Ezagueren eta jakiteen eraikitze indibiduala eta partekatua; ikerketaren, informazioa bilatzearen, iturriak erkatzearen, autoformakuntzarako informazioa “norbereganatzearen” bidez erakitzen den ezaguera; azken finean, horrek dakar irakasleen edo testuliburuen ahotsak ez diren beste batzuk ere gure ikasgeletan sarbidea izatea. Bestalde, halaber, ikasten etengabe ikastearen oinarriak jartzen dira, zeren arautitako irakaskuntza baino haratago doan prozesu bati ekiten baitzaio: ezagueraren aitzinean jarrera bat adierazten du, ezaguera erdiestea eta eraikitzea era autonomoan, garapen kritikoaren eta ikasleen gaitasun guztien bitartez. Hori guztia lor daiteke prozesu honetan ikasleek eta irakasleek jokatzen duten rolak ulertzeko modua aldatuz gero; irakasteko moduan aldaketa metodologikoa bultzatuz, ikasleen baitan indartu

dadin gaitasun kritikoa eta ulermenezkoa, bai eta informazio eta dokumentazio iturri desberdinen erabilpena, informazioaren tratamendua eta ikerketa lanak burutzea ere”.[4]

Informazio kontzeptuak badirudi giza jardueraren arlo guztiak gainditzen dituela, hala eremu sozialean eta ekonomikoan nola teknologikoan, hezkuntzan, kulturan, etab., nahitaezko tresna baita gaur egun mundua ulertu ahal izateko. Guzti-guztia formatu digitalean jartzen da, guzti-guztia web-aren parte izatera doa, informazioak alde guztietatik inguratzen gaitu azken hamarkadatan, eta ikaragarri hazi da.

> Genionez, Web tresna darabilten eragiketa intelektual gehienen asmoa ez da “informazioa berreskuratzea” soilik. Aldiz, ezaguera sorrarazi nahi dute. Horixe da, hain zuzen, pertsonen, korporazioen eta erakundeen egiazko jomuga.
> Eta ezaguera ez da informazioa; ñabardurak har ditzagun kontuan.[5]

| Informazioa | Ezaguera |
|---|---|
| Kanpoko zerbait da | Barneratua dago |
| Formagabea da | Egituratua dago |
| Azkar metatzen ahal da | Mantso-mantso haz daiteke |
| Automatiza daiteke | Gizakiari baizik ez dagokio |
| Bizigabea da | Ekintzara darama |

Bizi dugun informazio eta komunikazio gizarte honetan, zeinean aurrerapen teknologiko handiak, informazio gainkargak, komunikabide berriak, hezkuntza kontzeptuetan eta ikasteko eta irakasteko moduetan aldaketak suertatu baitira, eskola liburutegiek beren gain hartu behar dute eginkizun nahitaezko eta zentral bat.

Eskola liburutegitik eta dituen baliabideak kontuan hartuz, eskolak bere gain hartzen ahal du ikasleei informazioa nola aurkitu irakastea, nola tratatu eta nola eskuratu, “huraxe baita eremu antolatua, zeinean ikasleek eta irakasleek azken eginbeharra eta produktua helburu egokira eramateko behar diren ezaguera guztiak bilatu eta aurkituko dituzten, burutu beharreko proiektua adostu, helburuak ezarri eta zereginak zehaztu ondoren. Toki egokiena da ikasleek informazio gizarteak eskura jartzen dizkien baliabideez baliatzen ikas dezaten, bilatze eta interpretatze estrategiak beregana ditzaten eta, azken finean, beren ikaskuntza prozesuaren protagonista bilaka daitezen”.[6]

---

[4] Hainbat Egile, *Modelo de Biblioteca Escolar. La Biblioteca Escolar como recurso educativo*, Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza, Asturias. 2003.

[5] Millán, J. A., *aip. lana,* 17. orr.

[6] Rosario Álvarez, *Biblioteca Escolar como recurso educativo*, 2003.

Beraz, helburua da ikasleek berek beren buruz ari izan daitezela proposatzen da informazioa bilatzeko eta lantzeko orduan, era horretan ikaste esanguratsua izanen baitute.

Ikasleriaren autonomia prozesu horretan (bide emanen diona bere ezaguerak eta bilatze gaitasuna hobetzeko, ezaguera berriak erdiesteko eta informazio soberakina-rekiko kritikoago bilakatzeko) irakasleen eginbeharra tradizioz izan duten jarreratik aski urruntzen da ikasleen informazio iturriak zabaltzen eta eskola liburutegiaren azpiegituraz baliatzen diren heinean, "zeina funtsezkoa baita testuliburuak eta irakaspen magistralak baino haratago doazen ikasketa jardueren diseinua eta garapena sustatzeko eta irakasleei eskuragai jartzeko… /…zeharkakotasun eta diziplina aniztasunaren eremua izanik eta ikasleen aniztasunari egokizen zaizkion jarduerak garatuz".[7]

## 1. Zer dira Proiektu Dokumental Integratuak?

Proiektu dokumental integratuak lanabes bikainak dira ikasteko modu berriak, informazio gizartearekin bat datozenak, sorrarazi eta sustatzeko.

Lan egiteko beste modu bat da, informazioa ezaguera bilakatzeko bide ematen duena, zeinean eskola liburutegia hezkuntza jardueraren ardatz bihurtzen baita.

Proiektu dokumental integratuak ez dira "dokumentalen proiektuak", hots, ez dira ikus-entzunezkoen gaineko lan proiektuak (nahiz eta noizbehinka horiek ere erabiltzen diren). Ikerlanak dira, zeinetan ikasleak, gai edo arazo jakin bat ikertzeaz gainera, informazio bilaketaren eta lan intelektualaren mekanismoekin trebatzen baitira, horretarako eskola liburutegiko dokumentazio baliabideak erabiliz.

## 2. Lege esparrua

LOE http://www.boe.es/boe/dias/2006/05/04/pdfs/A17158-17207.pdf
2. artikulua. Hezkuntzaren xedeak
19. artikulua. Lehen Hezkuntzako printzipio pedagogikoak
26. artikulua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako printzipio pedagogikoak

Eskola liburutegia Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzen curriculuma ezartzen duten Foru Dekretuetan.
http://dpto.educacion.navarra.es/bibliotecasescolares/navarra.html

[7] Castán, G., *Las Bibliotecas escolares: Soñar, pensar, hacer.* Sevilla, Diada argitaletxea, 2002.

### 3. Programa instituzionalak

Hezkuntza arloko transferentzia autonomikoak burutu ondoren, erkidegoen esku gelditzen da eskola liburutegiekin loturiko programa instituzionalak garatzea. Horietako batzuk ondokoetan ikusten ahal dira:

- NAFARROAKO ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://www.pnte.cfnavarra.es/bibliotecasescolares
- ARAGOIKO ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://catedu.es/bibliotecasescolaresaragon/
- GALIZIAKO ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://www.edu.xunta.es/biblioteca/blog/
- EXTREMADURAKO ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://bibliotecasescolares.educarex.es/
- ANDALUZIAKO JUNTAKO ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://www.juntadeandalucia.es/averroes/bibliotecaescolar/
- KANTABRIAKO IRAKURKETA PLANA ETA ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://arbidoc.blogspot.com/2009/01/bibliotecas-escolares.html
- MADRILEKO ERKIDEGOKO ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://quetecuentasbiblioteca.blogspot.com/
- BALEAR UHARTEETAKO ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://www.llegirib.ieduca.caib.es/
- KATALUNIAKO ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://www.xtec.cat/innovacio/biblioteques/
- ASTURIASKO PRINTZERRIKO ESKOLA LIBURUTEGIAK
  http://www.educastur.es/index.php?option=com_content&task=view&id=257&Itemid=87

Eta gure herrialdetik kanpora proposamen eta programa interesgarrienetako batzuk hauek dira:

- Red de Bibliotecas Escolares de Portugal:
  http://www.rbe.min-edu.pt/ y su blog: http://rbe.blogspot.com/
- Bibliotecas/CRA de Chile:
  http://www.bibliotecas-cra.cl/

## **4.** LEHEN KAPITULU HONI BURUZKO EZINBESTEKO KONTSULTAK

- Eskola liburutegiaren eredua
  http://dpto.educacion.navarra.es/bibliotecasescolares/modelo.html

- Eskola liburutegiaren eginkizuna gizarte konplexu batean
  http://bibliotecas.grupo-sm.com/recursos/contenidos/cuaderno01a.htm

- Eskola Liburutegia Irakas-ikaskuntzarako Baliabideen Gune bilakatzea
  http://www.juntadeandalucia.es/averroes/bibliotecaescolar/images/MisPdf/organizacionygestion/TransformacionBEenCREA.pdf

- Eskola Liburutegien baliabideak
  http://ntic.educacion.es/w3//recursos2/bibliotecas/

## **5.** SAKONTZEKO IRAKURGAIAK


Bernabeu, N. eta Illescas, M. J., *La biblioteca escolar: un entorno creativo de aprendizaje.* http://ntic.educacion.es/w3//recursos2/bibliotecas/html/encuen/art8.htm [2011/06/18]

Cabrerizo Diago, J.; Rubio Roldán, M. J. eta Castillo Arredondo, S., *Programación por competencias. Formación y práctica*, Madril: Pearson Educación, 2008.

Camacho, J. A., *La biblioteca escolar en España: pasado, presente y un modelo para el futuro,* Madrid, Ediciones de la Torre, 2004.

Castán, G., *Las Bibliotecas escolares: soñar, pensar, hacer*, Sevilla, Diada, 2002.

ESKOLA LIBURUTEGIEN BILTZAR NAZIONALA. Salamanca 2006ko urriaren 18-20 http://www.fundaciongsr.org/documentos/7667.pdf [2006/11/28]

*Eskola Liburutegien ikastaroa.* CD_ROM Egile batzuen artean. CNICE, 2003ko berrikuspena. Gaur egun edukiak digitalizaturik daude, linean hemen: http://formacionprofesorado.educacion.es/index.php/es/materiales/36-bibliotecas-gestion

Delors, J., *La educación encierra un tesoro: informe a la Unesco de la Comisión Internacional sobre la Educación para el siglo XXI*, Madrid, Santillana, 1996.
http://www.unesco.org/delors/delors_s.pdf
Durban, G., *La biblioteca escolar, hoy*, Graó, Bartzelona, 2010.

Eisenberg, M. eta Berkowitz, R., *Information problem solving, the big six approach to library and information skills instruction*, 1999:
http://edweb.sdsu.edu/edfirst/bigsix/basics.html [2003/03/12]

García Guerrero, J., *Utilidad de la biblioteca escolar*, Trea, Gijón, 2010.
http://www.cnice.mecd.es/recursos2/bibliotecas/html/encuen/02encuen.htm

Kuhlthau, C. (2004), *Les 6 étapes du processus de recherche d'information (1993).*
http://www.ebsi.umontreal.ca/formanet/kuhlthau/kuh_etap.htm

MEC, *La biblioteca escolar en el contexto de la Reforma Educativa. Documento marco,* Madrid, MEC (1996).
http://w3.cnice.mec.es/recursos2/bibliotecas/html/01documarco.htm
——., *I Encuentro Nacional sobre Bibliotecas Escolares*. Madrid, MEC, (1997).

OCDE, "Competentes for the knowledge economy", en *Education Policy Analysis 2001*, Paris.

Hainbat Egile, *La Biblioteca Escolar como recurso educativo,* Asturiasko Printzerriko Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza, Oviedo, 2003.

# 2.

## Proiektuak

***Proiektua**: "Egin nahi dena nolakoa den eta nola egin daitekeen azaltzen duen idazkia, marrazkia, etab."* María Moliner.

Gaur egun, eta jakintzaren barruti guztietan, *proiektu* kontzeptua erabiltzen da helburutzat hartzen eta planifikatzen den ekintza bat gisa, epe baten mugapean, baliabide eta eragile zehatzekin.

Eskola barnean proiektuek **estrategia metodologiko bat** osatzen dute, William Heard Kilpatrick irakasleak hasitako ikaskuntzaren metodologia eraginkor deitzen diren horien osagaietako bat.

J. Deweyren ideia pedagogikoek eraginik Kilpatrickek *proiektuen metodoa* Winnetkako, Chicagotik gertu dagoen herri bateko eskolan, 1915ean eginiko lan bati jarraikiz oinarritu zuen. Eskola hartako lan proiektuak ezaugarri hauek zituen:

- Taldeka burutzeko jarduerak ziren.
- Proiektu batek hilabete batetik lau hilabetera arte irauten zuen, egunero 80 minutu.
- Ikasleen edo ikastetxearen interesak eta premiak izan ohi ziren sorburu.
- Proiektua disziplinartekoa izan ohi zen.
- Xedea ez zen bereziki ezer "irakastea", nahiz eta, berez, gauza anitz ikasten ziren, bereziki helburu komun baten aldeko lan kooperatiboa, partaidetzazkoa eta antolatua.
- Lanak bide ematen zuen, halaber, nolabaiteko indibidualtasunerako, ikasle bakoitzaren aukerak errespetatuz.

Kilpatrickentzat proiektu bat da "ekintzarako proposamen suhar bat giro sozial batean garatzekoa. Egiazko baldintzetan, ez itxurazkoetan, konpondu beharreko arazo bat".[1]

Proiektu baten funtsezko asmoa da eskola jardueren eta ohizko bizitzaren artean dagoen hutsunea murriztea.

[1] KilpatricK, W. H.,"The Project method" [proiektuen metodoa], *Teachers college record (New York)*, XIX. lib., 4. zk., 1918.eko iraila, 319-35 orr.

## 1. Proiektuen sailkapena

EDUKIAREN ARABERA
- Ardatz didaktikoaren inguruan, zeinean arlo batzuk integratzen diren
- Zeharkako ardatz baten inguruan

EZAUGARRIEN ARABERA
- Ikerketa
- Ekintza
- Diagnostikoa
- Ikaslana

DENBORARI DAGOKIONEZ
- Epe luzerako proiektuak
- Epe motzeko proiektuak

SORRERAREN ARABERA
- Irakasle batek prestatua
- Irakasle talde batek prestatua
- Irakasleek eta ikasleek elkarrekin prestatua

## 2. Proiektu motak

1. **Ekoizpen proiektuak edo proiektu sortzaileak** helburutzat tresnaren bat ekoiztea dutena. Ikasleei eskatzen zaie izan badiren ereduak molda ditzatela edo egiazko arazoei irtenbideak emateko planak diseina ditzatela.
2. **Proiektu sozialak:** gizabanakoaren oinarrizko beharrizanak aipatzen dira (osasuna, hezkuntza, enplegua edo etxebizitza), bai eta beste motatako premiak ere: duintasuna, autoestimua, gogokotasuna, segurtasuna, begiramena, etab.
3. **Proiektu dokumental integratuak,** ikerlan xumeak dira, zeinetan ikasleek gai edo arazo zehatz bati buruz aztertzeaz gainera, trebatzen baitira informazioa bilatzen eta lan intelektualaren arloko mekanismoetan, horretarako eskola liburutegiko baliabide dokumentalak erabiliz.
4. **Zerbitzu proiektuak:** era horretako proiektuen barnean sartzen da, maiz, tokiko komunitatea, eta bide ematen die ikasleei ikasgelan ikasitakoa bizitza errealean erabil dezaten. Herriko ibaiak garbitzeko plan bat prestatzea, edo herriko parkerako jolastoki bat diseinatzea, zerbitzurako ikaskuntza proiektuen adibide batzuk dira.

5. **Ikerketa proiektuak:** lan esperimentalak edo teorikoak dira, oinarrizko ezaguera berriak, zientifikoak edo teknikoak lortzeko helburuarekin.
6. **Garapen esperimentaleko proiektuak:** lehendik badiren ezaguerak eta teknikak erdietsi, konbinatu, itxuratu eta erabiltzekoak, hala zientzia arlokoak nola teknologikoak, enpresarialak edo beste motatakoak, planak eta egiturak prestatzera edo produktu, prozesu nahiz zerbitzu berriak, aldatuak edo hobetuak diseinatzera bideratzen direnak.
7. **Simulazioa/rolen jokoa:** proiektu horiek ikasleei lehen eskuko egiazko esperientzia emateko diseinatzen dira. Ikasleek, neska nahiz mutil, beste pertsona baten rola jokatzen dute edo itxurazko giro batzuetan murgiltzen dira, toki edo une jakin bat birsortuz. Simulazioa eta rolen jokoa era egokiak dira historiaz gogoeta egiteko eta hainbat ikuspegi izan ahal izateko.
8. **Urrutiko lankidetza**: proiektu horiek on line motako heziketa lanez osatzen dira. Egiazko bizitzaren ikasbide dira, beste ikasgelekin, adituekin nahiz komunitateekin linea bidez elkarlanean aritu bitartean.

## 3. Proiektuen bidezko ikaskuntzaren ezaugarriak

Proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza da problema interesgarriak ikertzeko ikasleak inplikatzen dituen ikaskuntza eredu bat, ondorioz benetako produktuak dakartzana eta proiektuaren prozesuaz jabetzera eramaten duena. Proiektuen metodoa abiapuntutzat duten ikasketen antolakuntzan, ikasleak benetako egoera arazotsu baten aitzinean jartzean, eskolatik kanpora dagoen munduarekin lotura handiagoa duen ikaskuntzari laguntzen zaio, eta bide ematen ezaguera lortzeko, ez zatika edo era isolatuan.

Proiektuen metodoan erabiltzen diren **edukiak** adierazgarriak eta garrantzitsuak dira ikasleentzat, egoera eta problematika errealak azaltzen baitituzte.

**Jardueren** bidez ikasleek arazoei irtenbidea emateko informazioa bila dezakete, bai eta nork bere ezaguera osatu ere, ikaskuntzaren mesedetan eta ikasitakoa eskualdatzea erraztuz. Ikasleei parte hartzeko eta beren ezaguera erakusteko modu ugariak eskaintzen dizkie, eta bateragarri da ikasleriaren ikasteko estilo desberdinekin. Proiektuaren prozesuak eta prozesua bera gauzatzen den bitartean beharrezkoa den gogoetak bide emanen dute informazioa zinez ezaguera berri bihurtzeko.

Proiektuek d laneko egunerokotasunean erabili eta integratzeko testuinguru ideal bat izatea ahalbidetzen dute. IKTei esker ikasleek kontrol handiagoa dute azken emaitzen gainean bai eta produktuak pertsonalizatzeko aukera ere. Ikasleak eskolako paretaz haratago joaten ahal dira, urrutiko ikasgelekin elkarlanean arituz posta elektronikoaren eta berek prestaturiko Web orrien bitartez, edo baita ere ikasitakoa multimediaren bitartez aurkeztuz.

## 4. Proiektuaren urratsak

Proiektu bat prestatzerakoan behar-beharrezko urrats hauek beteko dira:

### 1. Asmoa, gaia edo arazoa zehaztea

Lehenbiziko urratsa da zehaztea zein diren ikasleek lortu beharreko helmugak edo helburuak, bai eta zer nahi den ikas dezaten. Helmugak sei hilabeteko proiektu batean burutzeko bezain zabalak izan daitezke edo gai bakar bat burutzeko bezain mugatuak.

- Behar adina konplexua behar du izan eta zehatza, aldi berean, disziplinarteko lana ahalbidetzeko.
- Arazo bati, ikasleen premia bati, irtenbidea ematen dio.
- Partaidetzaren sustatzaile izan behar du eta kide guztien interesak bildu.
- Ideia guztiak batzen dira, bat ere baztertzeke (idea jario bat, taldekako lan saio batzuk, edo interes zentro batzuk).
- Taldeak, orokorrean, sinetsirik egon behar du berak erabakitako hura ekoitzi behar duela.

### 2. Lanerako plan bat egitea

- Abiatzeko tenorean taldeak badaki zer den sortu behar duena, baina oraindik ez daki gai izanen denez hura sortzeko, azpitaldeak eratzen dira, konpromisoa eta pertsona bakoitzaren partaidetza baloratzen dira.
- Planaren prestakuntza. Helburuak finkatzen dira eta, orobat, prestatu beharreko produktuak, denborak, arduradunak, plana burutzeko antolakuntza egokia.
- Etapa honetan pertsona bakoitzari bere gain har ditzakeen eta bere interesekoak diren erantzukizunak esleitzen zaizkio. "Gida" materialak prestatzen dira zer egin behar den jakin dadin eta oraindik ere taldea edo proiektua eratu ez dutenak motibatzeko.

Helmuga orokorrak finkatu ondoren, beharrezkoa da ikasleen ikaslanerako berariazko helburuak zehaztea. Horietan argi jarriko dira proiektuan parte hartzearen ondorioz espero diren ezaguerei eta trebeziak gauzatzeari buruz sor daitezkeen aldaketak. Ikasleen emaitzak bi zatitan bereiz daitezke:

- Trebetasunak ezagutzea eta gauzatzea: proiektuaren bukaeran ikasleek ikasiko dituztenak eta erabiltzeko gai izanen direnak.
- Lan prozesuaren emaitzak: prozesuan parte hartzen duten denboran ikasleek ikasiko duten guztia, gaitasunak, estrategiak, jarrerak eta prestasuna.

### 3. Diseinatutako plana betetzea

Proiektua diseinatu ondoren, praktikan jarriko da, malgutasunez baina ez antolatu gabe. Irakasleria adore-emaile izanen da, proiektuaren aholkulari (ez da, haatik, aholkulari bakarra izanen, hauek ere bai: familia, beste irakasle batzuk, beste pertsona batzuk…). Irakasleen rola apaldu nahi da, ikasleen garapen autonomoa ahalbidetzeko, beraz, bide eman behar zaie ikasleei beren kabuz ari, pentsatu eta, are, oker daitezen ere.

Inportantea da irakasleak edo talde batek idatzizko eta ikusizko memoria bat eramatea, gero prozesuaren gainean gogoeta egin ahal izateko, bai eta emaitzen berri eman ahal izateko ere.

### 4. Egindako lana epaitzea

Ebaluazioa etengabeko prozesu bat da. Funtsezko eginkizun pedagogikoa betetzen du ezagutzaren ikuspuntutik.

Proiektu onak beren helburua kontuan hartuz diseinatzen dira. Horrek berekin dakar hasieratik helmugak kontuan hartzea, ikasleek zer jakin behar duten erabakitzea eta gero lortutako ulermena nola ebaluatu zehaztea. Ebaluazioa planifikatu behar da:

- Mota desberdineko ebaluazio metodoak erabil daitezen.
- Ebaluazioa ikaskuntza zikloaren barnean sar dadin.
- Prozesuaren helburu nagusiak ebalua daitezen.
- Ikasleek ebaluazio prozesuan ere tokia izan dezaten.

Proiektuen metodoan garrantzitsuak dira bi motatako ebaluazioak: ikasleen emaitzen ebaluazioa eta proiektuak orokorrean izan duen eraginkortasunari buruzkoa.

#### *Ikasleek ikasitakoaren ebaluazioa*

Ongi diseinatutako ebaluazio plan batek elementu desberdinak erabiltzen ditu ikasleek proiektuaren helburuak bete dituzten jakitearren. Elementuok honako hauek izan daitezke:

- Produktuetan eta emaitzetan oinarrrituriko ebaluazioa: ikasleriaren lana zer ikasi duten jakiteko ebaluatzen da.
- Autoebaluaziorako txostena: ikasleek beren ebaluazioa egiten dute, ahozkoa edo/ eta idatzizkoa, ikasi dutenari buruz.

Ikasleek *proiektuaren aurrerapenen aurkezpenak* erabiltzearekin irakasleek elementu batzuk eskura dituzte proiektuaren garapena, bai eta ikasleek ikasi dutena ere, ebaluatzeko. Gomendagarria da proiektu guztien aurrerapenak behin edo gehiagotan jendaurrean aurkeztea, proiektuaren lanarekin zerikusirik duten emaitzak ebaluatu ahal izateko. Azalpenen ondorengo autoebaluazioek bide ematen diete ikasleei beren pentsamoldea, beren parte hartzearen ondorioz, nola eta noiz aldatu zen jakiteko.

### *Proiektuen ebaluazioa*

Proiektu orok joera izan ohi du bere norabideari ekiteko. Proiektua gauzatuz doan bitartean, epe motzeko emaitzak erabil daitezke aurrerapena neurtzeko eta beharrezkoa balitz, noranzko egokiagorantz bideratzeko.

Funtsezko laguntza da, hala ikasleentzat nola irakasleentzat, ***proiektuaren egunkaria*** erabiltzea, paperezko euskarrian nola blog batean.

Proiektuaren aurrerapenei egiten zaien jarraipenari erreparatuz estrategiak alda daitezke eta honelako kontuak hauteman:

- Proiektuko jarduerak nola gauzatu behar diren ulertzeko arazoak.
- Ikasleriaren motibazioa/partaidetza eta taldeen eraketa.
- Proiektuan parte hartzen dutenek ezarritako estrategia berriak.
- Ikasleek dituzten berariazko baliabideen edo laguntza berezien premiak.

Hagitz inportantea da, proiektua bukatu eta berehala, buruan oraindik ere berri-berri dagoenean, gogoeta egitea izan diren lorpen eta porroten gainean. Zerk funtzionatu zuen eta zerk ez gogoan hartzeak, pentsarazten digu hurrengo proiektuan hartu beharreko estrategia eta ekintza berrietaz.

## 5. Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza ereduaren onurak

Hainbat arrazoirengatik inportantea da estrategia metodologiko hau erabiltzea:

Proiektu bat gauzatzean ikaste moduak integraziora joko dute eta ikaste modu integratuak indartsuagoak dira, gehiago aplika daitezke eta memorian gehiago irauten dute. Proiektu baten arazoak, eskuarki, jakintza adar desberdinen ezaguerak aplikatuz konpondu behar dira.

Ezagueraren aitzinean jarrera positiboagoak izan ohi dira batbedera denean hautatzen eta bilatzen ari dena. Irakasleriak rol desberdina izaten du irakasteko moduan.

Arazoei irtenbidea ematen jakitea, informazioa bilatzen eta prozesatzen ikastea, ezaguera estrategikoak dira, ikasleriaren estrategia multzoa handitzen dutenak, ikaskuntza autonomoaren lagungarri. Ikasleen eta irakasleen artean pentsaera kritikoa, analitikoa eta gogoetazkoa sustatzen du, elkarlanean oinarriturik.

Proiektuetan oinarritutako ikaskuntzaren onurarik nabarienak hauek dira:

***Ikasleentzat***

- Beren buruekiko konfiantza handitzea eta jarrerak hobetzea. Ikasleak ikasteaz gehiago arduratzen dira arazoetan, desafiatzaileak eta batzuetan nahasiak izanik ere, sakontzeko aukera dutenean, hain zuzen ere bizitza errealean sortzen diren arazoekin antz handia dutelako. Aukera ematen die trebetasun konplexuak garatzeko, adibidez: goi mailako pentsaera, arazoei konponbidea ematea, lankidetza eta komunikazioa.
- Ikasgelan ikasteko aukera sorta handiagoa eskura izatea, eta horrek kulturalki desberdinak diren ikasleak inplikatzeko estrategia eskaintzen du. Aukera ona da ikasleen berariazko ikaskuntza premiei erantzuteko.
- Epe luzeko ikaskuntzari, erantzukizunari, arrakasta profesional eta pertsonalari loturiko pentsaera ohiturak garatzeko pizgarri da. Proiektuetan oinarrituriko ikaskuntzaz etekin handiena erdiesten duten ikasleengan metodo eta ikuspegi tradizionalak ez dira eragingarriak.
- Ikasle anitzentzat ikaskuntza estilo honen xarma esperientziaren zinezkotasunean datza, izan ere, ikasgeletatik kanpo esanahia duten bizitza errealeko jarduerez arduratzen baitira. Frogatua dago ikasleek, bizitza errealarekin loturarik gabeko datuak, testuinguru isolatuetan noiz eta non erabili behar diren jakiteke dabiltzanean baino ezaguera eta trebetasun gehiago bereganatzen dutela proiektu erakargarrietan murgiltzen direnean, non maila goragoko trebetasun mentalak erabili behar baitituzte.
- Beste alde batetik, eskolako esperientzia mota tradizionalago batean ohituta dagoen ikasleriarentzat, proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza ereduak eraldatze bat suposatzen du, izan ere, aginduei jarraitu beharreko eredutik autozuzendutako ikaskuntza jarduerak gauzatzen diren eredura bada aldea; aurkitu, integratu eta aurkeztearren guztia buruz ikasi eta errepikazioan oinarritzen den eredutik komunikatzeko eta erantzukizunaz jabetzeko entzun eta erantzuten den beste eredura; egitateak, nondik norakoak eta edukiak ezagutzen direneko eredutik prozesuak ulertzen direneko beste eredu batera; eredu teoriko batetik teoria aplikatzen den beste batera; irakaslearen ardurapean izan ohi den eredutik erantzukizun ordezkatura iraganarazten duenera.
- Bide ematen du ikaslanari zentzua aurkitzeko. Proiektuko gai bat proposatzen denean, ikasleak badaki zer den bere eginbeharra, zeri erantzuten dion, zein den horren bidez bilatu nahi den xedea… Ez da gauza bera liburuaren hurrengo orrial-

dean jarraitzea eta burutu beharreko jarduerak gidatzen dituzten helburuak ezagutzea ahalbidetzen duen proiektu batean parte hartzea.

- Ikasleak dakienaz abiatu ahal izateak, hori indartzeak eta balioesteak, haren autoestimoa goititzen du. Eskumenean dituen erronkak jartzeak, lortu duena ikusarazteak, haren interesa sustatzen du eta dituen aukerekiko konfiantza areagotzen. Ikaslearekin elkarlanerako eta laguntzeko jarrera izateak laguntzen du nork bere buruaz duen irudia hobetu dezan.
- Ikaslanean beste batzuekin parte hartzeak bere aukerekiko konfiantza handitzen dio eta autonomia eta erantzukizun handiagoan hezitzen du, guztien artean lan bati heldu behar zaionean.
- Ezaguera zertzeko garaian elkarlanerako aukerak ematen ditu, izan ere elkarlanean ikasteak bide ematen die ikasleei ideiak elkarrekin partekatzeko, nork bere iritziak adierazteko eta irtenbideak negoziatzeko, trebetasun horiek guztiak beharrezko izanen dituztenak beren etorkizuneko lanbideetan, besteak beste zenbait abildade eta ahalmen garatuz, hala nola lankidetza, erabakiak hartzea, denbora planifikatzea, eta abar.

### *Irakasleentzat*

- Proiektuetan oinarritutako ikaslana gelara daramaten irakasleek estrategia metodologiko berriak garatzeko aukera dute.
- Irakasleentzat egokiera baliotsuak ageri dira hezkuntzaren berrikuntza atalean: gaiak aukeratzean, prozesuak antolatzean eta gidari edo bitartekari rolak bere gain hartzean; ikerketa arloan: irakasleen hezkuntza praktikaz, irakas-ikaslanaren antolamenduaz eta ebaluatzeko prozedura berriaz, elementu eta metodo erabat berriak erantsiz, prozesuen gainean eta produktu errealen gainean ebaluazioak eginez; hezkuntza esperientziari dagokionez: irakas-ikaskuntza eredu eta estrategia desberdinak integratuz.
- Egokiera nabarmenetako bat da, diziplinarteko proiektuak garatzeko orduan beste kide batzuekin elkarlanean aritzeko aukera izatea, bai eta beste arazo batzuk egituratzeko aukera ere, hala nola ikasteko aukerak, proiektu onak prestatzeko eta IKTak, hots, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak, integratzeko lagungarri diren egoerak ezagutzea, eta horiek eguneroko lanabes gisa erabiliz.

### *Erakundearentzat*

- Egokiera ona da ikaskuntza komunitateak sortzeko eta diziplinartekotasuna praktikan jartzeko, aukera handiak irekitzen zaizkio berrikuntza didaktikoari, irakasleriaren talde lana gehitzen da, ikasleen eta irakasleen motibazioa sustatzen da, ikasleen partaidetza areagotzen da eta gatazka egoerak gutxitzen, sormena suspertzen da eta ikastetxeetako lan giroa hobetzen; eskola edukiak ikasleen interesekin eta egiazko bizitzarekin itsasten laguntzen da bizitza errealeko

egoera funtzionalak planteatuz eta hezkuntza erakundea bizitzarako prestaketa lanean aritzeaz gainera bera ere egiazko bizitza izatera irits dadin proiektu batzuk gauzatuz.

## KONTUAN IZATEKOA

Kontrako argudio bat da proiektuek denbora gehiegi jaten dutela. Proiektuetan konplexutasun eta iraupen desberdineko jarduera mota guztiak mamitzen dira. Egінkizunak izan daitezke kutsaduraren inguruko zerbitzu proiektu bat bezain zehatzak eta konplexuak, edo ikasgelako debate bat bezain xumeak. Proiektu bat bideratua egonen da ongi planifikatua dagoen heinean, etapako helburuekin bat etorriz, eta ikasleen eta irakasleen itxaropideei argiro erantzuten badie.

Beste argudio bat da proiektuetan oinarrituriko ikaskuntzak aldaketa osoa adierazten duela irakaskuntza praktiketan. Baina, proiektuetan oinarrituriko ikaskuntza bere aldetik irakaskuntza metodo bat da, metodo multzo baten barnean. Proiektuetan oinarrituriko ikaskuntzak bereganatzen ditu irakaskuntza estrategia eta ikaskuntza estilo desberdinak eta erantzuna ematen die, eta gaur egungo irakaskuntzan jarduteko modu bat da, ikaskuntzaren esperientzia aberastu eta denbora modu eraginkorragoan erabiliz. Hezitzailearen ikuspuntua aldatzen da. Helburua da, egun ere, ikasleei jakin behar dutena irakastea, bai eta egiteko gai izateko behar dutena ere.

Kontuan hartu beharrekoak dira proiektu bidezko lanaren alderdi batzuek berekin dakartzaten zailtasunak, adibidez bukaera irekiak, metodologia hau lehenbiziko aldietan erabiltzen denean izan daitezkeen arriskuak, kontrola eskuordetzearekin loturikoak; estrategia tradizionala ez denez gero, gurasoei eta komunitateari ikasleek egiten eta ikasten dutenaren berri ematearen zailtasuna; ebaluazio balioduna diseinatzea konplexua eta nekeza da eta zaila da ebaluazio estrategiak ikaskuntza helburuekin egokitzea.

Kontuan hartu behar da proiektu bidezko ikaskuntzak bide ematen duela mintzaira desberdinak garatzeko: idatzizkoa, informazioa bilatu eta berregiteko, ahozkoa, lanaren edukia, plastikoa eta artistikoa ikaskideei helarazteko, produktu batzuk prestatzeko asmoz, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera gaiak aurkezte aldera… Era honetako ikaskuntzak gaitasunak garatzen ditu, adibidez: plangintza, ulermena, hautaketa, adostea, argudiatzea, azaltzea…

## 6. Irakurketa proiektuak

Honelako kurtso batean, hain hertsiki loturik dagoena eskola liburutegiarekin, irakas-ikaskuntzarako eta irakurketarako baliabideen gune gisa, merezi du behar den denbora hartzea Teresa Colomerrek irakurketa proiektuen gainean bere liburuan *Andar entre libros: la lectura literaria en la escuela*[2] azaltzen dituen planteamenduak ezagutzeko.

Liburuaren bigarren zatian, *Eskola Irakurketak,* 4. kapitulua, irakurketa literarioaren eskola plangintza diseinatzen saiatzen da, hartaz gogoeta egin eta aztertzen.

> Liburuen irakurketak era anitzeko antolaketak izan ditzake eskola testuinguruaren arabera. Barbara Kieferrek[3] dioenez, ikasleen gaitasun literarioa hobetzen da baldin eta maisu-maistrek lan giroa antolatzen badute baldintza hauek barnean harturik:
>
> - Lan luzeko proiektuak edo unitateak
> - Egunero behin baino gehiagotan irakurtzea
> - Obrak berrirakurtzea
> - Sormenezko erantzuna eskatzen duten jarduerak
> - Bakarka irakurtzeko denbora tartea
> - Elkarrekiko gomendioak sustatzea
> - Ongi hornituriko liburu funtsa izatea
> - Maisu-maistraren interbentzioak, galderak eta iruzkinak tarteko

Esan nahi da, ikasleei liburuez hornituriko gune bat eskaini beharraz gainera (zer hoberik liburutegia eta ikasgelako liburutegia, edo José García Guerrerok[4] koordinaturiko Malagako lantaldeak "ikasgelako dokumentu saila" deitzen duena baino!) eta eskolan liburuen irakurketa eta jarduera mota desberdinak planifikatzeko komenigarritasunaz landa, ezinbestekoa da ohartzea eskola ikaskuntzak antolatzeko modu bat baino gehiago direla, bereziki eskolan irakurketa izatearen aldekoak: proiektu bidezko lana.

Iraupen luzeko proiektu bidezko lanak frogatu du irakurketa literarioaren eta eskola ikaskuntzen arteko loturari gehien laguntzen dion antolaketa moduetako bat dela.

---

2 Colomer, T. , *Andar entre libros: la lectura literaria en la escuela,* México: FCE, 2005, 159. orr.

3 Kiefer, B., "Los libros albúm como contextos para comprensiones literarias, estéticas y del mundo verdadero" en *El libro-album: evolución de un género para niños*, Parapara Clave bilduma, Venezuela, Banco del Libro, 1999, 65-75 orr.

4 García Guerrero, J. (coord.), *Libro Abierto*. 25. zk. Hemen: http://www.juntadeandalucia.es/averroes/bibliotecaescolar/images/MisPdf/boletines/libroa25-oct06.pdf

> Proiektu bidezko lanen bitartez, eskolako irakurketa jarduerek hein handi batean eskolan izan ohi diren zatiketa artifizialak gaindi ditzakete eta horrela ahalbidetzen da irakurketa ohiko eta beharrezko jarduera izatea gizarte alfabetizatu batean.[5]

Lan proiektuek osotasunezko irakurketa eta idazketa egoera bat dakarte berekin, alderdi zehatzei erreparatzea eskatzen duena. Zernahi proiektutan ikasleak era anitzeko testu idatzien igorle eta hartzaile bilakatzen dira, eta irakurtzeko arrazoi bat eskaintzean, ariketa batzuk gainditzea edo irakurtzeko trebezia edo testuaren ulermena izatea baino haratago, ikaskuntzarako baldintzarik hoberenak ezartzen dira.

Beste alde batetik, ikasleak testuaren irakurketaz hobeki gogoratzen dira baldin eta irakurketa hori jarduera luze eta zentzu berekiko baten oroitzapen oso batean integratzen bada.

> Hizkuntza proiektuak ekoizpen proposamen bat bezala definitzen dira (ahozkoa nahiz idatzizkoa) komunikaziorako asmo zehatz batekin…/… Horrela, bada, genero jakin bateko ipuinen bilduma bat argitaratzea, herriren bateko gida turistiko bat prestatzea, publizitate kanpaina bat gauzatzea, poesia erakusketa bat burutzea, zalduntza eleberri bat idaztea, molde poetikoko talde joko bat asmatzea edo pertsonaia mitologikoen informazio fitxategi bat diseinatzea, horiek guztiak lan proiektuak izan daitezke, lortu nahi den produktu bukatuaz ikasleek duten kontzientzia bat etor dadin alderdi deskriptibo, argudiozko, informatibo nahiz narraziozkoei buruzko ikaskuntzen lehentasunarekin.[6]

[5] Colomer, T., *aip. obr.,* 163 orr.
[6] Colomer, T., *aip. obr.,* 163 orr.

## **7.** EZINBESTEKO KONTSULTAK


**AREA, M.,** "Hablemos más de métodos de enseñanza y menos de máquinas digitales: los proyectos de trabajo a través de la www", http://webpages.ull.es/users/manarea/Documentos/metproyectos.pdf [2010/03/25]

**COLOMER, T.,** *Andar entre libros: La lectura literaria en la escuela,* Mexiko, FCE, 2005.

**HERNÁNDEZ, F.,** "La globalización mediante proyectos de trabajo" *Cuadernos de Pedagogía,* nº 185, 12-14 orr.,1988

**HERNÁNDEZ y VENTURA,** *La organización del currículum por proyectos de trabajo. El conocimiento es un caledoscopio,* Barcelona, Bolsillo Octaedro, 2008.

**KILPATRICK**
http://www.ibe.unesco.org/publications/ThinkersPdf/kilpatrs.PDF [2010/10/14]

**PROIEKTU BIDEZKO METODOA TEKNIKA DIDAKTIKA GISA.**
http://www.sistema.itesm.mx/va/dide/documentos/inf-doc/proyectos.PDF [2010/10/14]

**PROIEKTU BIDEZKO METODOA**
http://w3.cnice.mec.es/recursos2/orientacion/01apoyo/op03_b3.htm [2010/10/14]

**PROIEKTU BIDEZKO METODOA**
http://es.wikipedia.org/wiki/M%C3%A9todo_de_proyectos [2010/10/14]

**PABLO, P. eta VÉLEZ, R.,** *Unidades didácticas, Proyectos y Talleres.* Madril: Alhambra Longman, 1993 (Documentos para la reforma, 18).

# 3.

## Dokumentalak eta Alfabetatzea Informazioan (ALFIN)

# Dokumentalak

## 1. Aitzingogoetak

Dokumental hitza proiektu dokumental integratuak esaldiaren muinean dago eta ez halabeharrez, gaur egun informazioa anitz dokumentutan aurkitzearen ondorioa baita.

Alfabetatzea Informazioan (ALFIN) eskolako beharrezko zeregina da eta eskola liburutegiaren ezaugarri bereki bat.

Gure eskola liburutegiak dokumentuz mukuru beterik daude. Beraz, logika osoz, ikasteko leku ezin hobeak dira.

Dokumentu bat informazioa[1] daukan idazki bat da eta Dokumentazioa zientzia dokumental gisa (gaingiroki esateko) informazioa prozesatzeko zientziatzat har daiteke.

**Dokumentu** hitza latinezko ***documentum*** hitzetik heldu da eta hau berriz ***docere*** aditzetik, zeinek **irakatsi** esan nahi baitu. Horrela, bada, "zerbaiti buruz irakatsi edo eskolatzen duen zerbait" litzateke.

Baina, bestalde, ***docere*** aditzak egin, jakin, jakinarazi ere esan nahi du. Lerro hauek idazterakoan testuen prozesadoreari eskatu diogu hitz horien sinonimoren bat eman diezagula. Eta hona hemen emaitzak:

- *Egin*: sortu, eraiki, aurkitu, berritu.
- *Jakin*: ezagutu, ulertu.
- *Jakinarazi*: adierazi, parte hartu, komunikatu.

Atsegin zaigu hitz horien atzealdean dagoena. Horixe da, hain zuzen ere, lortu nahi duguna: gure ikasleek **beren ezaguera eraikitzea**, **sortzailea izatea**, **ulertzen duena komunikatzeko** gai izan dadin. Horretarako lagungarri izan dakiguke dokumentazioarekin lan egitea.

---

[1] Ikus: *Informazioa*. Linean hemen http://es.wikipedia.org/wiki/Informaci%C3%B3n [2011/10/15]

Irakasle garen aldetik geure buruari galdetu behar diogu zergatik egiten dugun eta zertarako den egiten duguna: beste modu batera lor ez genezakeenik lortuko al dugu dokumentazioarekin zuzenean lan eginez? Agian erantzunak gehiegizkoa dirudi, baina lan egiteko modu honek **hiritartasuna irakasten du**. Gure ikasleek pertsona bezala bere gizarte ingurunean garatzen ikasten dute. Besteak beste, honakoak egin behar dituen pertsona:

- Garrantzizkoa den informazioa eta ez dena bereizten jakitea.
- Edozein motatako informazioa edozein euskarritan irakurtzen jakitea.
- Irakurtzen duena ulertzeko, interpretatzeko, konparatzeko gai izatea.
- Zintzoa izaten ikastea, laburbiltzen duen pertsona izatea, aipatu bai baina kopiatzen ez duena, dokumentuak, zeinetan oinarritzen baita, egin dituztenen lana aitortu eta balioesten duena.
- Gainerakoen ikuspuntuak errespetatzea, argudioekin erkatuz eta ez mespretxuz edo irainez.
- Arduraz jokatzea, erabakia hartu aitzin informazioa eskuratuz. Baina beharrezkoa denean erabakia hartuz.

Gure helburuen artean ez da bakarra gure ikasleek prozedurazko eta adimenezko trebetasun zenbait garatzea. Hori arrunt ongi dago eta Eskola liburutegiari buruzko argitalpen orotan ageri da. Baina ez dago soberan oroitaraztea gure helburua ez dela teknokratak ez informatikoak sortzea. *Hezkuntza dokumentalak* helmuga prestuagoen zerbitzura egon behar du.

Eta hori guztia gehiegi nabarmendu gabe. Dokumentazioarekin aritzeak erreflexu egintza bat behar du izan, egunerokotasunaren parte izatea, ez gaitzan zirko bitxi batzuk sortzera behartu. Saihestu behar dira *gaur liburutegia tokatzen zaigu* bezalako kontuak, duela zenbait urte ikus-entzunezkoak *tokatzen* ziren bezala, zenbaitetan zertarako zen jakin gabe.

Eta zein da irakasleen rola?... Bada, batzuetan gidari izanen da, baina beste batzuetan iturri. Ez gara azalpen metodoei erabat uko egin diezaien eskatzen ari. Haren esku dago une bakoitzean zer den hoberena erabakitzea. Eta ez dezala beldurrik izan denbora galtzeari: ikasleei irakurzaleago, gaitasun handiagoko izaten laguntzeaz batera, hutsuneak bilatzeko parada izanen du programen tiraniari ihes egiteko.

Asmoa ez da soilik irakurketa hiritarren eskura jartzea informazioarekin bat egin dezaten, baizik eta prozesatzen irakastea. Komunikazio sareek eta multimediako multzo handiak izateak ahalbidetzen dute informazioa, anitzetan gizarte sektore dominatzaileek proposatzen dituzten ideiak indartzera zuzendua, abiada bizian higitzera. Eskolaren helburua baldin bada egungo gizartean modu eraginkorrez kokatzeko pertsonak hezitzea, "informazioaren gizartean" alegia, saiatu behar du informazio

arloko alfabetatzea garatzen, eta horrek suposatzen du, alde batetik, ikasleei eskaini behar zaizkiela gaur egun eskura dauden baliabide informatiboak, eta beste aldetik, behar den entrenamendua informazio trebetasunak garatzeari dagokionez, informazioaren demokratizazioa ahalbidetuz eta, orobat, kultura ondasunez baliatzeko orduan aukera berdintasuna, hezkuntza iraunkorra eta autoikaskuntza.

Ahaleginak egin behar ditugu gure ikasleak gai izan daitezen informazio bonbardaketa horri aurre egiteko, bereizten jakin dezaten zer den garrantzitsua eta zer ez, eta ikaskuntza esanguratsua eratzen. Kontua ez da informazioa azkar eta modu eraginkorrez aurkitzen jakitea soilik, baizik eta **pentsaera kritikoa** sustatzea eta **ikasten ikasteko** bitartekoak ipintzea. Eskola erakundeak gaitasun handiko pertsonak, kritikoak eta lan autonomo eta kooperatiborako balio dutenak prestatu behar ditu, bi arlo zabal hauek landuz: teknologiaren erabilpen zentzuzkoa eta informazio trebetasunen garapena.

> Azken hamarkadako teknologiaren garapenak, horren erabileraren hedapenak eta digitalizazioarekiko aplikazioak, prozesamenduak eta informazioa era guztietako lengoaietan banatzearekin (testuak, ikus-entzunezkoak, soinudunak, bideografikoak, etab.) informazio erabilgarria biziki ugaldu da, benetako iraultza eraginez, eta ondorioz, aldaketa sakonak gizartean, antolakuntza sozialaren ereduan, gizakien izaeran, pentsamoldean eta ekiteko moduan, bai eta jarduereetan ere.
>
> Aipatu aldaketen protagonistak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak, IKTak, eta informazioa baldin badira, horiexek behar dute izan eskola erakundearen aldaketak bideratzeko erreferentzia, helburu honekin: gaitasun handiko pertsonak, autonomoak eta kritikoak prestatzea, elkarrekin nolabaiteko lotura duten bi barruti hauetan:
>
> - Teknologiaren erabilera (alfabetatze teknologikoa)
> - Informazioaren erabilera (alfabetatzea informazioan)[2]

Eskola erakundeak aurre egin behar die gizarte errealitate berriak eskatzen dituen beharrizanak betetzeko ezinbesteko aldaketei. Orain arte orokorki planteatzen ez ziren helburu hauek bete nahian: ikasten ikastea, era autonomoan ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea, lankidetzan aritzen ikastea, bizitza osoan zehar ikastera prestatzea eta asmo hori izatea, lanabes teknologikoak erabiltzen ikastea, informazioa erabiltzen ikastea, informazioa abiapuntu, ezaguera sortzen ikastea.[3]

---

[2] Rodriguez, M. J. eta Planchuelo, D., "Educación, biblioteca y TIC en la sociedad de la información: reto y compromiso" Hemen:http://www.anabad.org/admin/archivo/docdow.php?id=158 [2010eko azaroaren 23]

[3] UNESCO. (1996) *La educación encierra un tesoro: informe de la Comisión Internacional sobre La educación para el Siglo XXI, presidida por Jacques Delors.* Madril: Santillana.
Baita hemen ere: http://www.unesco.org/delors/delors_s.pdf [2011-06-14]

## 2. Eskola liburutegietako baliabide dokumentalak

Eskola Liburutegiaren baliabide dokumentalak era askotakoak dira eta honela sailka daitezke[4] ondorengoak kontuan hartuta:

- Dokumentuen maila.
- Dokumentu mota.
- Haien egitura.

### A. Dokumentuen maila

Eskola Liburutegiaren dokumentu baliabideak lau mailatan sailkatzen dira erabilitako euskarrien arabera.

**A.1** ▸ Dokumentu inprimatuak:
liburuak, egunkariak, aldizkariak, argazkiak...

**A.1** ▸ Dokumentu digitalak:
cd-rom, Web-orriak...

**A.1** ▸ Ikus-entzunezko dokumentuak:
cd´ak, audio kaseteak, bideokaseteak, azetatoak, diapositibak...

**A.1** ▸ Eskuz maneiatzeko dokumentuak:
Mundu bolak, maketak...

### B. Dokumentuen motak

Euskarria nolanahikoa izanik ere, dokumentuaren tipologia aldatzen da informazioa antolatzeko eta komunikatzeko moduaren arabera. Batzuek informazio zehatza ematen dute, beste batzuek labur-labur.a.

**B.1** ▸ Dokumentu orokorrak:
Liburu dokumentalak, biografiak, aldizkariak...

**B.2** ▸ Erreferentzia dokumentuak:
Hiztegiak, entziklopediak, atlasak, urtekariak...

### C. Dokumentuaren egituraren arabera

Argitaratzen den dokumentu bakoitzeko, euskarria edozein dela ere, editoreak edo ekoizleak argibide baliagarriak ematen ditu irakurleak berehala atzeman ditzan dokumentaren edukia, generoa eta gaurkotasuna.

---

4 Itzulpena: *A pesquisa da informaçâo EB2, 3 e Secundario,* Gabinete da Rede de Bibliotecas Escolares (Portugal)-ek "La recherche d'information à l'école secondaire" Web-orritik abiatuz moldatu dokumentua http://pages.infinit.net/formanet/cs/leveille.html [2011-06-10ean kontsultatua]

Argibide horiek edizioaren eta ekoizpenaren munduan erabiltzen diren arauak eta konbentzioak betez ematen dira.

Argibide horiek azal-orrian, Web-orrien lehenbiziko orrialdean eta dokumentuen azalean daude; honako hauek dira: izenburua, egilea, ilustratzailea, argazkilaria, argitaletxea, argitalpen tokia eta data, copyright, ISBN eta jatorrizko hizkuntza eta itzulpena.

Beste alde batetik, liburu dokumentaletan bestelako argibide batzuek zorrotzago ematen dute dokumentuaren edukiaren berri: aurkibidea, laburpena, aitzinsolasa, sarrera, bibliografia…

Ezagutzea merezi du nolakoak diren eskola liburutegi batean gehien erabiltzen diren dokumentuetako batzuk. Horretarako honako hauetan kontsulta daiteke:

- *Eskola Liburutegian nola ikasi eta Ikertu* http://dpto.educacion.navarra.es/publicaciones/pdf/estudiar.pdf

- *Es de libro.* CEDROk sustaturiko hezkuntza programa, hezkuntza komunitate osoari zuzendua, irakurketa bultzatzeko, testu sorkuntza eta egilearen eskubideekiko errespetua. http://www.esdelibro.es/index.php?id_seccion=22

## 3. Arau bibliografikoak

**Bibliografiak** dira ohar zuzen eta zehaztuen multzo bat, dokumentu bat identifikatzeko bide ematen dutenak.
**Erreferentziek** dokumentuak era arautuan azaltzen dituzte.

Dokumentu bat azaltzeko arau hauek bete behar dira:

- **UNE 50-104 (ISO 690)** araua, monografiei, monografietako parte batzuei, aldizkariei, aldizkarietako artikuluei, arau eta patenteei buruzko erreferentzia bibliografikoen ereduak finkatzen dituena.

- **ISO 690-2** araua, baliabide elektronikoak aipatzeko. Datu-baseen, ordenagailu-programen, aldizkari elektronikoen, aldizkarietako artikuluen, posta elektronikoen eta abarren erreferentzia ereduak finkatzen ditu.

  Erreferentzia datuak aipatzen den dokumentutik jasoko dira: iturburu-dokumentua. Batez ere azaleko orritik aterako dira eta, behar izatera, obraren beste zati batzuetatik.

  Adibide jakin eta zehatz batzuk ikusten ahal dira dokumentu inprimatuak ez ezik (monografiak, artikuluak, legeak, serieko argitalpenak, biltzarrak, biltzarretako txostenak, tesiak, ikus-entzunezko dokumentuak), baita dokumentu elektronikoak ere (testu elektronikoak, datu-baseak, informatika-programak, serieko argitalpen elektronikoetako artikuluak, albiste buletinak eta banaketa zerrendak, mezu elektronikoak) erreferentziatzeko moduez, horretarako kontsulta daiteke:

- Bibliografia nola aipatu:
  http://www.uc3m.es/portal/page/portal/biblioteca/aprende_usar/como_citar_bibliografia/como-citar-bibliografia.pdf [2011/03/25]
- Kontsulta daiteke, halaber:
  http://sibuc.uc.cl/sibuc/dhi/citar/normas_apa_impresos.html [011/06/16]
- Dokumentu elektrikoak aipatzeko irizpideak:
  http://www.revista.unam.mx/vol.4/num2/art4/inicio.htm [011/06/15]

# Alfabetatzea informazioan (ALFIN)

Duela gutxi arte pertsona bat alfabetatua izanen zen baldin eta irakurtzeko eta idazteko gai bazen. Gaur egun, trebezia horiek ez dira aski. Teknologiaren eta komunikazioen garapenak bide ematen du informazioa mota guztietako lengoaietan erdiesteko: testuak, ikus-entzunezkoa, soinuduna, bideografikoa, zeinek **irakurmen gaitasun berriak, teknologikoak eta informaziozkoak** eskatzen baitituzte.

## 1. ALFIN logoak zer adierazten du?

Zurkowskik kontzeptua sortu zuenez geroztik, ALFIN behin baino gehiagotan birdefinitu izan da azken urte hauetan, itzal handiko eta ibilbide profesional luzeko erakunde eta elkarteen aldetik.

Hagitz argia eta laburra da Liburuzainen eta Informazio arloko Profesionalen Britainiar Elkargoak, CILIP-ek (2004) eginiko definizioa: "Alfabetatze informaziozkoa da jakitea noiz eta zertarako behar duzun informazioa, non aurkitu, eta nola ebaluatu, erabili eta era etikoan komunikatu"[5].

ALFINek bere baitan hartzen du batbederaren informazioarekiko beharrizanen eta arazoen ezaguera, eta, orobat, informazioa era eraginkorrez identifikatzeko, kokatzeko, ebaluatzeko, antolatu eta sortzeko, erabili eta komunikatzeko gaitasuna, planteatzen diren arazo edo auziei aurre egiteko; aurrebaldintza da Informazio Gizartean partaidetza eraginkor bat izateko eta bizitza osoan zehar ikaskuntzarako oinarrizko giza eskubidean parte hartzeko[6].

[5] Alfabetatzea Informazioan:
http://es.wikipedia.org/wiki/Alfabetización_informacional [2011-06-15]

[6] Pragako adierazpena, hemen:
http://sol-e.com/plec/archivos/Docs_Bibliografias/Declaraci_Praga_castellano.pdf [2011-06-15]

Norbait **informazioan alfabetatua** izanen bada, nahitaez informazioa era eraginkor eta kritikoan erabiltzen jakin behar du berariazko arazoei irtenbidea bilatzeko eta, horren kariaz, **gai** izan behar du honako **trebetasunetan**:

- Gaia mugatzen: esaldi bat idatzi, kontzeptu nagusienak.
- Informazio baliabideak identifikatu eta hautatzen.
- Direktorioetan, Web-guneetan, katalogoetan, datu-baseetan, bilatzaileetan eta abarretan bilatzen.
- Dokumentuak hautatu eta aztertzen.
- Informazioa ebaluatzen.
- Informazioa lortzen : atera eta erregistratzen.
- Informazioa interpretatu, aztertu eta sintetizatzen.
- Ekarpen pertsonalak egiten, norberaren produktu informatiboa erdiesteko.
- Lana antolatu eta idazten, iturriak aipatuz.
- Lana aurkezten.

Froga daitekeenez, ALFIN kontzeptuari dagozkion definizio guztiak **gaitasun** hitzaz mintzo dira.

"LOE-oinarrizko gaitasunak eta curriculum berria"[8] izeneko dokumentuaren arabera "Informazioa izateak ez du, berez, informazioaren erabilera egokia bermatzen, ez eta automatikoki ezaguera sortzen. Informazioa ezaguera bilakatzeko nahitaez aztertu, sintetizatu, erlazionatu behar da,, inferentziak eta ondorioak atera behar dira, azken finean, ulertu eta ezagueraren aldez aurreko eskemetan integratu. Era berean, eskuraturiko informazioa eta ezaguerak komunikatzeko gauza izan behar du, eta horretarako adierazpen baliabideak erabiliko dira, beren baitan lengoaia desberdinak eta berariazko teknikak ez ezik, informazio eta komunikazio teknologiek eskaintzen dituzten ahalbideak ere barnean hartzen dituztenak"

Errealitate horren aitzinean garrantzizkoa eta ezinbestekoa da eskola liburutegia, Unesco-ren "Eskola Liburutegirako Manifestuak"[9] dioen bezala ulertua, hau da "... hezkuntza baliabidea, ikasleei eta eskolako langileei ideien eta informazioaren egiazko erabiltzaile izatea ahalbidetzen duena, edozein direla ere horien formatuak edo bitartekoak. Eskola programaren osagai integral gisa, liburutegiak eta haietako langileriak sarbide adierazgarria eskaintzen dute ikaskuntza tresnetarako eta edukietarako eta praktikan lagundu egiten dute horiek aplikatu eta erabiltzeko tenorean".

---

[7] "Informazio eta gaitasun digitalaren tratamentua", 11-12 orr.: http://www.juntadeandalucia.es/educacion/www/portal/com/bin/europa/Contenidos/Documentos/borrador_ed_ciudadania_02/1149769624442_marco_y_descripcion_comp_basicas_6_jun_06.pdf [2006ko abenduaren 2a]

[8] UNESCO, hemen: http://www.unesco.org/webworld/libraries/manifestos/school_manifesto_es.html#1 [2011-06-14]

ALFINek ondorio sakonak dakartza maisu-maistra, ikasle, liburutegi eta bereziki hezkuntza sistemarentzat. Ageri-agerian dago ikasleak ikerketarako gai bat edo arlo bat argiro definitzeko gaitasuna behar duela izan; hautaketa egin behar duela iker-ketako kontzeptua edo gaia ongi adieraziko duten gako-hitzak erraz bila ditzan; bi-laketa estrategia bat bilatu behar du informazio iturri desberdinak barnean hartzen dituena eta iturri horien antolaketa ulertzen duena. Baina, era berean, gai izan behar du bildutako datuak aztertzeko, horien garrantzia, kalitatea eta egokitasuna balioetsi eta azkenean informazio hori ezaguera bilakaraz dezan. Hori guztia ikastetxeak edo eskolak ahalbidetu behar du eta eskola erakundearen baitan, aipatu den bezala, es-kola liburutegia aukerako tokia da.

## 2. ALFINen nazioarteko proposamenak eta ereduak[9]

Aintzindarietako bat eta nazioartean erabilietako bat da **Big6**[10] eredua, Lehen Hezkuntzatik goi mailako ikasketetara aplikatzeko prestatua. Sei fase ditu, pentsaera kritikoaren planteamenduan oinarrituak.

Beste eredu bat, arrunt ezaguna, **Big Blue** izenekoa da, zortzi informazio gaitasun ezartzen dituena, Bigarren Hezkuntzara eta unibertsitate hezkuntzara zuzendua:

*Big Blue*[11] proiektuak eredu eta arauen taxonomia bat ezartzen du eta, horietatik abiatuz, 8 gaitasun hauen eredua garatzen da:

1. Informazio beharra aitortzea
2. Informazio beharrari ekitea
3. Informazioa erdiestea
4. Informazioa era kritikoan ebaluatzea
5. Informazioa egokitzea
6. Informazioa antolatzea
7. Informazioa jakinaraztea
8. Prozesu osoa berrikustea.

Osatuenetako bat da **OSLA**-k (Kanadan Ontarioko Eskola Liburutegien Elkartea) prestaturikoa, zeina informaziorako ikasketen programa gisa definitzen baita, derrigo-

[9] Informazio arazoak konpontzeko ereduak: http://www.eduteka.org/pdfdir/ModelosCMI.pdf [2011-06-14]
[10] Big6 eredua informazio arazoak konpontzeko, hemen: http://www.eduteka.org/Tema9.php [2012-03-25]
[11] http://www.library.mmu.ac.uk/bigblue/pdf/taxonomyofinformationskills4.pdf [2011-06-14]

rrezko hezkuntzako ikasketa maila guztietan zeharkako aplikaziorako garatu dena.[12] Eredu honek badu modulu bat, Informazioa eta Gizartea izenekoa, zeinak azpimarratzen baitu informazio gizartearen garrantzia eta ezaugarriak ulertzeko premia. Informazioa sozialki eraikitzen denez gero, ez du zertan neutrala izan behar, ez eta objektiboa ere, eta, beraz, ikasleek jakin behar dute zein diren beren inguruko segurtasun, kaltegabetasun eta etika gaiak. Eskola-ikasleek informazioa erabiltzeko ikastetxean ikasitako gaitasunak bizitza errealeko beste egoera batzuetan aplikatzeko gai izan behar dute.

2006ko uztailean Gabriel Piedrahita Uribe Fundazioak (Colombia) latino-amerikar egoeretara egokitutako proposamen bat argitaratu zuen, **Gavilán7** eredua, lau urratsetan egituratua, eta urrats bakoitzerako metodologia bat daramana irakasleei laguntzeko estrategien aplikazioan, hala prozedimenduzkoen, kontzeptualen eta jarreren gainekoak nola arazo praktikoei irtenbidea ematekoak.[13]

Espainian, Gloria Durban-ek, berez eredu bat ez izan arren, DBHko lehen zikloko ikasleentzako ibilbide hezigarri batzuk prestatu ditu.[14]

Azkenik, aipatzekoa da Gaztela-Mantxako Liburutegian, 2006ko otsailaren 2an eta 3an gauzatu zen *Liburutegia, ikaskuntza eta hiritartasuna, ALFIN,* izenburuko Mintegia, erkidego hartako gobernuak eta Kultura Ministerioaren Liburutegien Koordinakundeko Zuzendariordetza Nagusiak bultzatua, zeinean barruti desberdineko 70 adituk parte hartu baitzuten, aurrerapauso bat izan zen aurreneko topaketa izan zelako gogoeta egiteko ALFINen arazorik larrienez, praktika onak burutzeko metodo pedagokiko egokiez, ematen diren gaitasun eta ikasketak ebaluatzeko aukerez eta horiek sustatu eta ezartzeko politikez. Horren ondorioa izan da *Toledoko Adierazpena*, adostasun terminologikoa edo zerbitzu honetarako irudi grafikoa.[15]

---

[12] Informazio ikasketak, Kindergartendik 12. mailara artekoak. Hemen http://www.eduteka.org/pdfdir/Curricul_3A.pdf y http://www.eduteka.org/pdfdir/Curricul_3B.pdf [2011-06-14]

[13] Gavilán eredua eta metodologia Informazioa maneiatzeko Gaitasunaren garapena. Hemen: http://www.eduteka.org/Editorial22.php [2011-06-15]

[14] Durban Roca, G. (2005 ) http://www.bibliotecaescolar.info/actividades/indice.htm [2011-06-15]

[15] Toledoko adierazpena. Hemen: http://travesia.mcu.es/S_ALFIN/ficheros/Declaracion_Toledo.pdf [2006ko abenduaren 2a]

## 3. Zergatik da beharrezko ALFIN bidezko prestakuntza?

Paulette Bernhardek (2000) azaltzen ditu ALFINen hezitzeari ekiteko ditugun arrazoi nagusiak:

- *Edozein motatako formatuan eskura eta erabilgarri dagoen informazioaren hazkuntza eskerga.*
- *Prestakuntza gero eta heterogeneoagoa, zeinaren zinezkotasuna, balioa eta sinesgarritasuna etengabe finkatu behar baitira.*
- *Zerbitzu jardueretan sakon oinarritutako ekonomia, azkar garatzen diren teknologiak eskatzen dituena.*
- *Pertsona bakoitzak bizitza osoan barna eskualda eta erabil ditzakeen gaitasunak beretu eta garatzeko beharra, bai eta arazoei irtenbidea emateko asmoz ikasten ikasi beharra ere.*
- *Ikerketa arloko jardueretarako garapen berrienen jakitun izateko erabateko beharra.*
- *Teknologiak menderatzeko gai diren pertsonak, iturri elektronikoetan eta interneten informazioa bilatzeko eta ebaluatzeko, barneko eta kanpoko informazioa kudeatzeko bai eta alerta jarduerak burutzeko ere gai direnak kontratatu nahi dituzten enplegu-emaileen eskakizuna.*
- *Pedagogia eraginkor bateranzko eboluzioa, arreta nagusia ikaslearengan jartzen duena, baliabideetan eta arazoen konponbidean oinarritua.*
- *Informazioa darabilen heziketak ikasketen jarraipenean eta eskola-arrakastan duen eragina.*

Arrazoi horietatik hasita eta **ALFIN** ereduak konparatuz **informazio trebetasunak** hamar eremu nagusitan bildu ziren:

- *identifikazioa,*
- *sormena eta antolakuntza,*
- *informazioa bilatzeko estrategiak,*
- *trebetasun teknologiko eta informatiboak,*
- *ebaluazioa eta tratamendua,*
- *erabilpena eta komunikazioa,*
- *alderdi etikoak eta sozialak,*
- *jarrera aktiboa bizitza osoko ikaskuntzaren alde,*
- *komunikabideei buruzko kritika, eta*
- ***auto-ebaluazioa.*** [16]

[16] Bernhard, P. (2000), *La formación en el uso de la información. Una ventaja en la Educación Superior, Situación actual.* Linean hemen: http://eprints.rclis.org/bitstream/10760/5775/1/ad0522.pdf [2011-06-15]

Esaten ahal dugu, beraz, informazioa erabiltzeko gaitasunak bere baitan hartzen dituela beste alfabetatze motak: ohiko alfabetatzea (irakurtzeko eta idazteko gaitasuna); komunikabideen arloko alfabetatzea (komunikabideak kritikoki ebaluatzeko gaitasuna eta haientzat ekoiztekoa, adibidez, telebista, publizitatea eta filmak); eta zenbakizko alfabetatzea (datuekin edo informazioarekin eta zenbakien bitartez problemak ulertu eta ebazteko gaitasuna).

Uste da OCDEk, zeinek funtsezko gaitasun gisa, oinarrizko alfabetatzearekin eta alfabetatze teknologikoarekin batera *DeSeCo* proiektuaren barnean ALFIN sartzen baitu, neurriak hartuko dituela hezkuntza politikak bideratuz ALFIN ereduan hezitze aldera.

## **4.** EZINBESTEKO KONTSULTA


Andreu, L., *La formación de alumnos de educación secundaria en habilidades de información*. Hemen:
http://ntic.educacion.es/w3//recursos2/bibliotecas/html/encuen/art2.htm [15-06-2011]
Benito Morales, F., *La educación documental en la biblioteca escolar.*
http://ntic.educacion.es/w3//recursos2/bibliotecas/html/encuen/art3.htm [15-06-2011]

——— *Nuevas necesidades, nuevas habilidades. Fundamentos de la alfabetizacion en informacion:*
http://eprints.rclis.org/archive/00004672/02/EMPEUIcap1.pdf [14-06-2011]

Bernhard, P. (2000), *La formación en el uso de la información. Una ventaja en la Educación Superior.*
http://eprints.rclis.org/bitstream/10760/5775/1/ad0522.pdf

*BIG 6 eredua aplikatzeko adibidea*
http://www.eduteka.org/pdfdir/AplicaBig6.pdf

*Es de Libro*. CEDROk sustaturiko hezkuntza programa, hezkuntza komunitate osoari zuzendua, irakurketa bultzatzeko, testu sorkuntza eta egilearen eskubideekiko errespetua. http://www.esdelibro.es/index.php?id_seccion=22

*Informazio ikasketak, kindergartenetik hasi eta 12. mailara arte, Ikastetxeetarako eta Eskola Liburutegietako Informazio Guneetarako Curriculuma"*, Kanadan Ontarioko Eskola Liburutegien Elkartea prestaturikoa. http://www.eduteka.org/pdfdir/Curricul_3A.pdf

RED-foroa Informazioan Alfabetatzea. http://www.alfared.org/

Nafarroako Gobernua. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren Zuzendaritza Nagusia. Hezkuntza Baliabideak: Eskola Liburutegiak.
http://dpto.educacion.navarra.es/bibliotecasescolares/directorio.html

Guertin, Hélène *et al.* (2004) *Chercher pour trouver : L´espace des élèves,* http://www.ebsi.umontreal.ca/jetrouve/

Illescas, M.J. (2003). *Eskola Liburutegian nola ikasi eta ikertu: erabiltzaileak prestatzen.* Iruña, Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
http://www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/pdf/estudiar.pdf

*Metodología GAVILÁN 7:*
http://www.eduteka.org/pdfdir/GuiaGavilan.pdf

*Zer da ikertzea?*
http://www.bibliotecas-cra.cl/docs/recursos/Manual_Invest.pdf

## 5. BESTE BIBLIOGRAFIA BAT

Arellano, V. (2002). *Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa. Baliabide dokumentalak aurkitu, ulertu eta baliatzeko gida didaktikoa.* Nafarroa, Nafarroako Gobernua. Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
http://dpto.educacion.navarra.es/bibliotecasescolares/blitz_files/Blitzverde3%20cas.pdf

Association for Teacher-Librarianship in Canada (ATLC) (1995). "Carta de los Derechos alumno en la era de la información". Educación y Biblioteca, 91.
http://www.fundaciongsr.es/pdfs/bd_proyecto_general.pdf

Cobos, L., eta Álvarez, M. (1998). La enseñanza de las habilidades documentales y la práctica educativa. Educación y Biblioteca, 92.

Doc.E- Documentos de Educación.
http://www.eurosur.org/DOCE/

*Les 6 étapes d'un projet de recherche*. (1997). Hezkuntza Ministerioa, Québec.
http://pages.infinit.net/formanet/cs/tabl2.html#taches

Rodríguez Rodríguez, María Jesús eta Planchuelo Martín, Domingo (2004). *Educación, biblioteca y TIC en la sociedad de la información : reto y compromiso*. Foro Biblioteca y Sociedad. Berritze eta Hobetze esperientziak. Murtzia.
http://www.anabad.org/admin/archivo/docdow.php?id=158

Tedesco, J. C. (2003). Los pilares de la educación del futuro. Hemen: Debates de educación(2003: Bartzelona). Fundación Jaume Bofill; UOC.
http://www.uoc.edu/dt/20367/index.html

UNESCO. (1996) *La educación encierra un tesoro: XXI. menderako Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordearen txostena, Jacques Delors buru zela.* Madril:
http://www.unesco.org/delors/delors_s.pdf

# 4.

## Integratuak

## 1. Eskola liburutegia eta curriculum integrazioa

*Eskola Liburutegia ziur aski curriculum aldaketarako beharrezko azpiegitura izanen da*[1]. **Castán, 2002.**

Eskola Liburutegi batzuek urteak daramatzate urratsez urrats aitzinera egiten (emeki-emeki edo azkarrago ere bai, kasuan kasu) Eskola Liburutegia eguneroko irakaslanean erabat integratu eta curriculum arlo guztietan eta zeharkakoetan aplika dadin.

Eskola Liburutegien aldaketa hasi zen, kasu gehienetan, irakurketa literarioarekin eta irakurtzera animatzearekin loturiko alderdiak garatu beharra sumatu zenean. Alderdi horiek oso inportanteak dira ikasleek beren nortasun, afektibitate eta ezagutza maila garatu ahal izateko, izan ere, narrazio, azalpen, poesia eta drama testuak irakurtzeak adimen emozionala aberastu ez ezik, gizaki gisa hazteko ezinbestekoak diren jomugak eta ikuspegiak zabaltzeko bide ematen digu.

Mailaz mailako prozesu horretan jarraikiz eta prestakuntza literarioari inola ere uko egiteke, orain kontua da Eskola Liburutegia integratzen jarraitzea, modu naturalean eta egunerokoan erabiltzea, lehenago soil-soilik irakaslearen gidak eta testuliburuak erabiltzen ziren lekuan.

Xedea da Eskola Liburutegiaz eta haren baliabide guztiez baliatzea, zernahi euskarritan agertzen direla ere (liburuak, CD, CD-ROM, Internet...)

Irakas-ikaskuntza prozesua sendotzeko antolakuntza eta adimen aldaketak bultzatuz, ikasleek beren ikaskuntza prozesuaren egile gisa duten rol eraginkorra azpimarratuz.

> Eskola Liburutegia, ezagueraren ikuspegi ugari ematea ahalbidetzen duen giro aberasgarria den aldetik, ikaskuntza integratuzko komunitate bilaka daiteke, partaidetzaren eta proiektuetan oinarrituriko lanaren ezaugarriekin". [2]
>
> "Liburutegiaren erabilpena bizikidetzaren esperientzia da, kontrajarpen, irakurketa eta informazio gaitasunen garapenarena. Etengabeko ikaskuntzarako prestatzeko helburua duen irakaskuntzak eszenatoki eta egoera batzuen beharra du, eskola liburutegiak sorrarazten dituenak bezalakoak, proiektu dokumentalekin ekiteko modukoak, non konbinatzen baitira testu bidezko informazioa, errealitatearena, beste batzuekiko trukea, elektronikoa, analisia

---

[1] *Las Bibliotecas Escolares: soñar, pensar, hacer.* Castán, G. Sevilla: Diada argitaletxea, S.I., 2002.

[2] Piquín, R., Memoria: ikerketa proiektua *Nos informamos, comunicamos y aprendemos con Internet y los multimedia en la Biblioteca Escolar*, Oviedo, 2002 (argitaragabea), 2. orr.

> eta kritika… Eskola liburutegia Web 2.0 motako tresnekin konbinatu behar da, aurka edo ordez jarri gabe, izan ere, liburutegiak berekin dakar hurbiltasuna, ingurune bat izatea, maila eta jatorri kultural desberdinetako ikasleak integratzen laguntzen du, katalizatzaile eta atxikitzaile izan daiteke familia eta auzoko komunitateekiko, testuinguru ez formaletan hezitzen laguntzen du, bizi guztirako ikaskuntza sustatzen du, osagai orekatzailea da baliabide gutxi izan eta desabantailazko inguruabarretan daudenentzat...[3]

Ikuspegi honetatik, hain zuzen ere, daukate tokia proiektu dokumental integratuek.

## 2. Proiektu dokumental integratuen izateko arrazoia

| INTEGRATUAK DIRA: |
|---|
| **Eskola Liburutegiko material guztiak nolanahiko euskarritan erabiltzen direlako;** |
| **Programazioan eta garapenean fikzio eta ezaguerako liburuak erabiltzen direlako.** |
| **Eskolako eta eskolaz kanpoko ezaguera arlo guztien inplikazioa sustatzen delako.** |
| **Gai edo proposamen orokor batetik abiatuz garatzen direlako.** |
| **Irakasle guztien partaidetza eskatzen dutelako eta, maiz aski, baita hezkuntza komunitatearena ere (gurasoak, irakasleak, elkarteak...), bereziki beste liburutegiekin elkarlanean (hala Eskola Liburutegi hurbilenarekin nola inguruko beste Eskola Liburutegiekin).** |

[3] Gómez Hernández, J., "Las Bibliotecas Escolares en España: Veinte años de altibajos", en *Bibliotecas Escolares, ¿el último reino de papel?* Linean hemen: http://es.scribd.com/doc/59063310/Bibliotecas-Escolares-el-ultimo-Reino-de-Papel [2012-03-25]

Proiektu dokumental integratuek anitzetan kontuan hartzen dituzte zeharkako arloak eta, jakina, diziplina aniztasunetik (DBHn eta Batxilergoan) eta orokortasunetik (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan) abiatuz eraikitzen dira.

Proiektu dokumental integratu hauek, maiz ahalbidetzen dute eskola edukien motibaziorik eta sinesgarritasunik ezari aurre egin dakion, izan ere, informaziozko gai eta aukera anitz ematean errazten dute eskola edukien eta ikasleen interesen eta bizi errealitatearen arteko lotura, bizitza errealeko egoera funtzionalak planteatzen baitira "xedezko jarduerak" burutuz, eta Kilpatrickek dioen arabera hezkuntza erakundea bizitzarako prestatzeko bakarrik ez, bera ere bizitza izan dadila.

Proiektu dokumental integratuen jarduerak *"ikastetxeko prozesu pedagogikoetan erabat integraturik egonen dira eta, hortaz, Ikastetxearen Heziketa Proiektuan, (IHP) eta PGAn jasoko dira",* [4] eta horien diziplina aniztasunagatik talde lanerako nolabaiteko konpromisoa eskatzen dute, bai eta etapa, arlo eta ikasgai guztietan sartzen diren edukiak, jarrerak eta prozedurak garatzea ere, zeinen bidez laguntzen baitzaie ikasleei informazioa jasotzetik ezaguerara eta ikaskuntzara dagoen urratsa ematen.

Egoera hoberena talde lana bada ere, horrek ez du baztertzen edozein espezialitate, arlo edo departamentuko irakasle batek aukera izatea Proiektu Dokumental Integratuak, soilik bere irakasgai, eremu edo espezialitatera mugaturikoak, planteatu eta burutu ahal izatea.

Behin eta berriz aipatu behar da **ikaskuntza hauek berariazko lan proiektuekin lotu beharra**. Ikasten ikas daiteke baina ikaskuntza esperientzia jakin batzuen bitartez bakarrik. Euskarri berriak eta teknologia berriak liburutegian sartzea nahitaezkoa da eta hori kontuan hartu beharra dago jarduerak egiteko garaian. Baina, hala ere, teknologia horien erabilpen hutsak ez du deus aldatuko. Eskola liburutegiaren eginkizuna da ikasleei beren ikasketetan koherentzia zentzu bat ematea, xedearen, esanahiaren, ikasten duenaren interkonexio zentzua. Eta hori lortzeko modurik eraginkorrena da proiektu dokumentalak gauzatzea.

---

[4] ◢ Rosario Álvarez, *La biblioteca Escolar como recurso educativo.* Asturiasko Kontseilariordetza, 2003.

## 3. Nola egin proiektu dokumental integratuak

Lan proiektu bati ekin aitzin behar da:

- Lan harreman onak izan: ikasleak beren artean eta irakasleekin elkarlanean.
- Aldez aurreko prestakuntza: ikasleak lan metodo egituratuetara ohituta badaude, "zubi jarduera" zenbait praktikatzen ahal dugu, modu ez horren egituratuan lan egiteko behar diren trebetasunak erdiets ditzaten.
- Jarrera aldaketak irakasleen artean. Lana orain ikasleengan zentratzen da, batez ere taldeka lan egiten dute.
- Beste aldaketa batzuk; toki antolakuntza berria ikasgela barnean eta kanpoan (liburutegia, ordenagailuen aretoa, beste toki batzuk), ebaluazio kontzeptua, autoebaluazioa kontuan edukitzea...[5]

Batzuetan, ikertu behar den gaia fikziozko liburu bat, egoera arazotsu bat planteatzen diguna, irakurri ondoren sortzen da. Iritzi kontrajarriak, debate bat edo ideia jasa bat eragin eta gero, horiek onartzen eta adosten dira ikasle taldeak bere egin arte.

Gainera, maiz aski, fantasiazko edo motibaziozko egoera sortzen da, planteatu den arazoa edo gaia zentratzen eta norbere gain hartzen laguntzen duena eta Proiektuaren abiapuntu izanen dena.

Beharrezkoa da lehenbiziko une bat, arras inportantea, finkatzea, **zer egin, zer ikertu nahi dugun… eta zergatik** planteatzen duena. Talde handitan gauzatzen da eta ongi gogoan hartzen da ikasle guztien iritzia, gaia taxutzen hasteko.

Bigarren unean **aldez aurreko ezaguerak hautematen ditugu**, halako hartaz… dakitena identifikatuz; Hori ere taldeka eginen dugu eta anitzetan irakasleek ezusteko bat baino gehiago izan ohi dugu ikasleek aldez aurretik duten ezaguera zein kopurutsua den ohartzen garenean. Lehendik jakindakoaz konturatzea nahitaezkoa da zenbait arrazoirengatik:

- Ikasleen autoestimua nabarmen indartzen da, dakitenaz jabetzean eta besteei jakinaraztean.
- Balio digu jakiteko nondik abiatu behar dugun eta gaia edo arazoa zein aldetara enfokatu behar dugun.
- Ezagutze prozesuaren aitzinamendua ebaluatzeko.

---

[5] Rosario Álvarez, *La biblioteca Escolar como recurso educativo.* Hezkuntza Kontseilaritza. Asturiasko Printzerria, 2003.

Hirugarren unean **zer jakin nahi dugun** planteatzen diogu geure buruari, ahaleginak eginez ikasleek etekin handiena atera diezaien gaiaz duten jakinmin eta interesari. Behin-behineko **aurkibide** bat egiten saiatuko gara, ikerketaren ibilbidea ezartzeko bide emanen diguna, informazio iturriak eta jarduera posibleak adieraziz.

Une honetan, halaber, jakin nahi duguna curriculum ofizialeko helburu eta edukiekin lotuko dugu.

Oraintxe erabaki behar du bakoitzak bere ikuspuntua edo ikerketari ekiteko hautatu duen atala. Hauxe da lan taldeak finkatzeko unea ere.

Hiru une hauek gaia ZEHAZTU edo MUGATZEKO etapa bakarraren osagai dira.

Hurrengo fasean informazio **iturriak bilatuko** ditugu eta eskura ditugun baliabideak.

Pentsatu behar dugu gure esku izan dezakegun informazioa non eta nola aurkitu (ahozkoa, idatzia, ikus-entzunezkoa, grafikoa, Interneten bidez, etxean, liburutegi publikoan, eskola liburutegian…). Pentsatu behar dugu, orobat, informazioa nork ematen digun (gurasoek, aiton-amonek, auzokideek, adituek…), izan ere, informazio iturriak pertsonalak izaten ahal dira, grafikoak, bisualak, plastikoak…

Bosgarren unean **dokumentuak hautatu eta informazioa irakurriko dugu**. Informazioa sailkatuko dugu irakurketa azkar baten bidez, eduki adierazgarriak identifikatuko ditugu eta irakurketa arretatsuago bat eginen dugu, behar izanez gero, behin-behineko aurkibidea berregituratzeko asmoz.

Hainbat jarduera gauzatzen dira, hala nola hitzaldiak, informazio iturrien bilketa eta sailkapena, egokia dena eta ez dena baloratzea, etab.

Seigarren unean **informazioa prozesatzen da**, hots, sakonago irakurri, informazioa aztertu da eta ikertzen, egiten eta ezagutzen denari buruz gogoeta egiten da.

Hondarrean, beste une batean, **informazioa komunikatzen edo aurkezten da**. Modu desberdinez ager daitekeen azken produktua da: txosten bat izan daiteke, ipuina, Web-orria, museoa, erakusketa, maketa, Power-Point motako dokumentua… Kontua da ikerketaren aurkikuntzak era desberdinetan eta ikus-entzule desberdinei aurkeztea.

Behin betiko aurkibidea finkatzen da, iturriak aipatzen dira, dokumentuaren forma (gramatika, ortografia…) eta mamia berrikusten (doikuntza/egokitasuna planteatu den gaiari buruz, epigrafeak, sailak…)

Irakasleek, proiektuak programatzerakoan, gogoan hartu behar dituzte antolakuntza alderdi batzuk:

- Tokien erabilpena eta antolakuntza. Eskola Liburutegiko lana, ikasgelakoa, Liburutegi Publikokoa, informatikako gelakoa, erabilera anitzeko gelakoa…
- Denbora antolatzea. Ahaleginak egin beharko dira gutxieneko plangintza bat aurrera eramateko, proiektuan eman daitezkeen orduei buruz, eta epe batzuk ezarriz sakabana ez gaitezen.
- Informazio iturrien eta baliabideen gutxieneko antolakuntza, ikasleen eskura jarriz, baliabideei buruz proposamenak eginez edo ikasleek berek egiten dituztenak gogoan hartuz.
- Lana antolatzea, kontuan edukiz badirela sail batzuk talde handitan gauzatzen direnak, beste batzuk talde txikitan eta are bakarka ere.
- Gogoan hartzea ikasleek berek eginiko autoebaluazioa, bai eta prozesuari eta emaitzei buruzko ebaluazioa ere. Proiektuaren osagai guztiak ebaluatzea izanen da helburua:

  - Gaia hautatzea.
  - Irakasleen esku hartzea proiektuaren fase guztietan.
  - Ikasleen parte hartzea, proiektuaren prozesuan bereganatu eta ikasi dutena.

Arrunt inportantea da ikasleekin denbora ematea iturri bibliografikoak zuzen aipatzen ikasi eta lanak aurkezteko moduaz behar diren estandarrak betetzen ohitu daitezen.

## 4. Proiektuak prestatzeko iradokizunak

Proiektu dokumental integratuak prestatzeko abiapuntutzat balio dezaketen iradokizun interesgarri batzuk:[6]

1. **Diziplina desberdinak elkarrekin lotzen dituzten proiektuak:** ikaskuntza alderdi desberdinak daudenez, helburua da diziplinen arteko plangintzak koordinatzea, esate baterako, Geometria eta Arte Plastikoak (proportzioak), Matematika eta Historia (erromatar zenbakiak, arabiarrak).
2. **Gaien, topikoen, ideien proiektuak:** ezagueraren arlo desberdinak integratzea ahalbidetzen dute. Hemen "ideia" da ezagueraren arloak menderatzen dituena. Adibidez, "Eguberriak" gaitzat hartzen duenak, besteak beste, Hezkuntza artistikoa, Erlijioa, Historia eta Gizarte Zientziak integratzen ditu.

[6] Iturria: http://icarito.aconcagua1.copesa.cl/profes/informatica/doc/diseno_de_proyectos.doc Diseño de Proyectos Hezkuntza Sarea – Txile (2003ko azaroaren 12an kontsultatua)

3. **Bizitza praktikoari eta egunerokoari buruzko proiektuak:** eguneroko bizitzako arazo anitz ez dira aise kokatzen diziplina bakar baten barrutian. Adibidez, “arrazakeria”, “drogak”, “armagabetze nuklearra”, “baliabideen erabilera”, zeharka landu beharreko gaiak dira, ulergarriago izan daitezen.
4. **Aro historikoei eta/edo eremu geografikoei buruzko proiektuak:** aroak eta/edo eremuak diziplina bereizietan kokatzen diren edukien eta prozeduren gune bateratzaile dira, adibidez, “mundu gerrak”, “mineralak”…
5. **Erakunde garrantzitsuetan eta gizataldeetan oinarritzen diren proiektuak:** oinarri horren gainean sortutako proiektuek erakundeak eta taldeak dituzte erabilgai diziplina batzuei dagozkien ezaguerak egituratzeko, esate baterako, “espetxeak”, “desagertutako tribuak”, “elizak”…
6. **Aurkikuntzei eta asmakizunei buruzko proiektuak:** era horretako gaiek indartzen dute errealitateari, gizadiaren ondare kulturalari buruzko ikerketa. Esate baterako “gurpila”, “penizilina”, “idazketa”, “konputagailua”…

Proiektu dokumental integratuek bide ematen dute eskola liburutegiak bere alderik hoberena ager dezan jarduera pedagogikoen eta dokumentu zerbitzuen diziplina anitzeko zentro gisa, horiek baitira, adina edo bizimodu maila kontuan hartu gabe, hezkuntza komunitate osoaren irakas-ikaskuntzako ohiko jardueren euskarri.

## 5. PROIEKTU DOKUMENTAL INTEGRATU BATZUEKIKO LOTURA


PIQUÍN, R. eta REY, A., "Proyectos documentales integrados en la BE/CREA. ¿Qué son? ¿Cómo hacerlos?" Boletín *Libro Abierto,* 21. Hezkuntza Kontseilaritzako Probintzi Ordezkaritza Malagan. Andaluziako Junta, 2005.
http://cepronda.org/libroabierto/?p=2320 [2012/02/01]

PIQUÍN, R., "Proyectos documentales integrados: una experiencia tecnológica entre bibliotecas y escuelas."
http://sol-e.com/plec/archivos/Docs_Bibliografias/rpiquin.pdf [01/02/2012]

PIQUÍN,R. eta SANTILLÁN, B. *¿Qué pinto yo en todo esto?,* Velázquez y Cia.
http://congresos.cnice.mec.es/ceiie/area3/documentacion/comunicaciones/html/3comunicacion05.html [2012/02/01]

PIQUÍN, R., "Propuesta para celebrar el 250 aniversario de Mozart desde la BE-CREA".
http://es.calameo.com/read/0001334163a2653e48053 [2012/02/01]

PIQUÍN, R., "Un ejemplo de proyecto documental integrado con alumnado de 2º ciclo de primaria, para desarrollar competencias lectoras y alfabetizar en información."
http://www.plec.es/archivos/experiencias/PROYECTO_DOCUMENTAL_INTEGRADO_PRIMARIA_CP_PABLO_IGLESIAS.Piquin.pdf [2012/03/25]

PIQUÍN, R., "Música y cine", http://www.sol-e.com/plec/documentos.php?id_seccion=9&id_documento=126&PHPSESSID=79ce19c627a06c097dd757d7fe1a27d8 [01/02/2012]

PIQUÍN CANCIO, Rosa (2008), "Empleamos proyectos documentales integrados para leer, investigar y desarrollar habilidades de información en la biblioteca escolar", en *Bibliotecas escolares: ideas y buenas prácticas II,* MEC: Madril 2008; 51-73 orr.. L.G. M- 23948-2008

# 5.

# Proiektu dokumental integratuen garapeneko tresna digitalak

Internetek baliabide franko eskaintzen du ezaguera ikerkuntza bidez eraikitzeko. Alde horretatik, ondorio arrunt positiboak dituela iruditzen zaigu ikaskuntza prozesuan

Internetek eskola-liburutegian egon behar du. Baina argi eduki behar dugu Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) erabat oinarritutako jarduerak sobera nabarmentzea nahasgarri izan daitekeela ikasleentzat. Horien erabileraren berehalako errentagarritasunak (erantzun azkarra, bat-bateko saria) ahantzarazten ahal die Internet beste iturri bat besterik ez dela informazioa bilatzeko tenorean. Anitzetan egiaztatuko dugu gure ikasleek beren bilaketa lanak Sarera mugatzen dituztela hurbilagoko eta kalitate handiagoko baliabideak alde batera utziz: monografiak, aldizkariak, entziklopediak, hiztegiak... Ahantzi gabe, maiz, ikerkuntza batean funtsezko iturriak izan beharko liratekeenak ez direla doakoak eta beraz ez daudela eskuragai Interneten. Gure *Sareen Sare* estimatuan, distira eginagatik dena ez da urrezkoa eta guzti-guztia ez da aurkitzen ahal. Gure eginkizun nagusienetako bat izanen da ikasleei horixe ulerraraztea. Ez ditzagun ikasle "googlemendekoak" sortu

Salbuespen hori eginik, Internetek ideia eta baliabide franko eskaintzen ahal dizkigu, geure proiektuetan aplikatzekoak, eta gainera, sekuentzia didaktikoa antolatzeko tenorean geure buruak segurtasunik gabe ikusiko bagenitu, proposamen antolatuak, urratsez urrats, izanen genituzkeela eskura, bikainak, era horretako ikerkuntza lanari ekiteko. Adibidez, WebQuest eta MiniQuest direlakoek, ideia ugari eskaintzen ahal dizkigutelako, bai eta metodologia bat, lanean aplikatzekoak eskola liburutegiko baliabide inprimatuekin.

# WebQuest

Irakasle guztiek noiz edo noiz geure buruari galdetu izan diogu nola izan beharko lukeen Interneten erabilera hezkuntzan. Bernie Dodgek, San Diegoko Unibertsitateko irakasleak, 1995ean galdera horixe zuen buruan, ez baitzitzaion gustatzen ikusten ari zena. Une haietan, planteatzen ziren jarduerak ez zihoazen gai bati buruzko orrialdeak bilatzetik eta horren gaineko galderei erantzutetik baino haratago.

Uste osoa zuen jardueren ardatza ez zela informazioa bilatzea baizik eta erabiltzen ikastea, eta horren kariaz WebQuest modeloa garatu zuen, zeinaren ezaugarri bereizgarriak hauek baitira:

- Ikerketa jarduera planteatzen da.
- Irakasleek hautatzen dituzte informazio iturriei buruzko erreferentziak.
- Ikasleek lan jakin bat burutzen dute, eta horretarako informazioa sailkatu, sintetizatu eta prozesatzen dute
- Lana taldeka egiten da, argi eta garbi esleitutako erantzukizunekin.

Lan proposamen hau nazioarteko irakaskuntza komunitatean horren zabal hedatu izanaren arrazoietako bat da eman beharreko urratsak ezin hobeki definitzen dituen txantiloiari jarraikiz garatzen dela. Hots, urrats zehatzeko jarduerak dira.

**Ikus ditzagun WebQuest baten osagaiak:**

## 1. Sarrera

Lehena da egin beharreko lanari buruz laburki informatzea. Ikasleengana zuzenean joanen gara eta saiatuko gara haien arreta erakartzen, lortu nahi dena argi eta garbi azalduz.

## 2. Zeregina

Metodo honen elementu zentrala da: zereginik gabe ez dagoWebQuestik, eta ez da besterik. Dodgek berak horrela adierazi du:

> WebQuestak sarean oinarrituriko beste esperientzia batzuetatik bereizten dituen ideia nagusia hauxe da: WebQuest bat goi mailako pentsamendu mota bat bultzatzen duen zeregin erakargarri eta egiteko moduko baten inguruan dago eraikia. Informazioarekin zerbait egitean oinarritzen da. Pentsamendua sortzailea izan daiteke edo kritikoa, eta bere baitan dauzka arazoen konponbidea, iritzia, analisia nahiz sintesia. Zeregina ez da izanen galderei erantzutea soilik, edo mekanikoki pantailan ikusten dena errepikatzea. Zeregina, idealki, helduek beren lanean egiten dutenaren eskala txikiagoko bertsioa da, eskolako paretetatik kanpokoa.[1]

Ongi hautaturiko zereginak edukian pentsatzera behartuko du: azken finean, horren bidez, irakasleek definitzen dute zer nahi duten ikasleek ikas dezaten

## 3. Prozesua

Puntu honetan zeregina burutzeko jarraitu beharreko urratsak adierazten dira. Komeni da egin beharreko lana sekuentziatzen eta jasotako informazioa antolatzen lagunduko duen gidoia ematea. Lana taldean egiten bada, hartu beharreko ikuspegi desberdinak definitu behar dira.

## 4. Baliabideak

Ez dezagun ahantz WebQuestetan irakasleak direla informazio iturriak hautatzen dituztenak. Oraintxe da kontsultatu beharreko loturen zerrenda eskaintzeko unea. Kalitatezko orrialdeak izanen dira, gaiari buruzko informazio zehatza emanen dutenak.

## 5. Ebaluazioa

Oso elementu garrantzitsua da WebQuest batean. Ikasleek une oro jakinen dute zertan ebaluatuko duten eta zein irizpide erabiliko diren. Horrek lanaren alderdirik inportanteenetan zentratzen lagunduko die. Ebaluaziorako errubrikak erabili ohi dira, balioespen matrizeak ere deitzen direnak.

Bukatzeko, komeni da itxierako jarduera burutzea, eginiko lanari buruz hausnarketa egiteko, eta ikasitakoaz gogoeta egiteko. Klase nahiz talde osoaren bateratze lana izan daiteke.

[1] Starr, Linda, "Technology in the Classroom: an Education World e-Interview With Bernie Dodge" *Education World*, 2000. http://www.education-world.com/a_tech/tech020.shtml [2011/06/18]

Normalean, WebQuestak hiruzpalau astetan garatzen dira.

WebQuest baterako diseinatzen ahal diren zereginen sailkapena, Bernie Dodgeren arabera[2]:

- **Errepika zereginak**

Errazenak dira eta, agian, interes txikienekoak. Ikasleek frogatu behar dute kontsultaturiko dokumentazioa ulertu dutela, laburpen txiki bat eginez.

- **Bilketa zereginak**

Lana kontsultaturiko informazioa formatu komunean jartzean datza. Esate baterako, gai jakin bati buruzko loturak bilduz. Baina kontua ez da erreferentzien zerrenda bat egitea, horiek sailkatzea eta antolatzea baizik.

- **Misteriozko zereginak**

Ikerkuntzaren helburua misterio-halo batek inguratzen du. Baliabide bat da Lehen Hezkuntzako ikasleen arreta, batez ere lehenbiziko zikloetakoena, erakartzeko. Adibidez, pertsonaia historiko baten mezua jaso dezakete, hari buruzko ikerlan bat egitera bultzatzen dituena, nor zen, noiz bizi izan zen, zer egiten zuen... Ez da nahasi behar igarkizun baten soluzioarekin, zeinaren erantzuna orrialde jakin batean aurki dezaketen.

- **Kazetaritza lanak**

Eskatzen zaie erreportaje bat prestatzea, arreta berezia jarri behar dutenekoa informazioa zehatza izan dadin. Horretarako, era anitzeko iturrien lekukotasunak atxiki behar dituzte, gertaera baten bertsio desberdinak islatu eta norberaren aurreiritziak alde batera utzi.

- **Diseinu zereginak**

Helburu jakin bat betetzeko plana ezartzean oinarrituak, aldez aurretik ezarritako murrizketak kontuan izanik. Esate baterako, ikasketa bidaia bat diseinatzea, ibilbidea, hotelak eta bisitak hautatuz, baina erabilgarri duten denborari eta ezarritako aurrekontuari egokituz. Zeregin horien bitartez, helduek mundu errealean izan ohi dituzten trebetasunak garatu nahi dira ikasleen baitan.

---

[2] Viera, Mary, *WebQuest Taskonomy Cluster,* http://projects.edtech.sandi.net/staffdev/tpss99/tasksimap/ [2011/06/18]

- **Produktu sortzaileko zereginak**

Azken emaitzak izan behar du ekoizpen literarioa, grafikoa, musikala... ikasitakoa islatzen duena.

- **Adostasuna eraikitzeko zereginak**

Gatazkak konpontzera bideratuak, iritzi-kontrastearen eta negoziazioaren bitartez

- **Sinetsarazteko zereginak**

Ikasleek argudiatze sinesgarria garatu behar dute, berek ikertutakoan oinarritua. Hondarreko produktua izan daiteke publizitate kanpaina bat, egunkari bateko editoriala… Azken buruan, entzuleengan eragina izatea du helburu.

- **Auto ezaguerarako zereginak**

Ikasleak saiatuko dira beren trebetasunak, beren helburuak, beren interesak aurkitzen. Adibide ohikoenetako bat da lanbide bat hautatzea.

- **Zeregin analitikoak**

Zeinen bidez erkaketa, desberdintasun eta antzekotasunak aurkitzea eta horien esanahia sustatzen baitira. Adibidez, Europako eta Estatu Batuetako bizimoduen artekoak.

- **Iritzia emateko zereginak**

Ikasleak ebaluazio prozesuetan ohitzen dituzte. Horretarako nork bere irizpideak ezarri behar ditu, defendatu eta adierazi. Erabil ditzakete beren web-orri gogokoena, egunkari hoberena, etab. hautatzeko.

- **Zeregin zientifikoak**

Informazioa ulertu ondoren, hipotesiak aitzinatuko dituzte eta erkatzen saiatu.

# MiniQuest

MiniQuestak WebQuestetan oinarritzen dira: irakasleek beren ikasleentzako diseinaturiko instrukzio moduluak dira, pentsaera kritikoa bultzatzen dutenak, ezaguera eraikitzeaz gainera. Berrogeita hamar minutuko saio batean edo bitan zehar burutzeko diseinatu dira.

**Oinarrizko hiru MiniQuest diseinu daude:**

## **Aurkikuntzako** MiniQuesta

Curriculum unitate baten hasieran burutzen dira, aurkezpen gisa. Zatiketa zelularra esplikatzen den unitate batean, demagun, irakasle batek gaia aurkezten dietela bere ikasleei “Minbizia” jakinaraziz. Ia ikasle guztiek eritasun hori duen edo izan duen norbait ezagutuko dute, segurki. Horrela, eritasun mota honen hastapeneko ikerketaren bidez mitosia eta zatiketa zelularra ikertzeko testuinguruaz eta garrantziaz jabetuko dira.

## **Esplorazioko** MiniQuesta

Curriculum unitatean zehar egiten dira. Kontzeptu bat bereziki ulertzeko edo curriculum helburu bat betetzeko beharrezkoa den edukia ikastera dago zuzendua. Aurkikuntzako MiniQuestekin batera erabil daiteke edo bereizirik. “Minbiziaren” adibidearekin jarraituz, Esplorazioko MiniQuest batek minbizia azter dezatela eskatzen ahal die ikasleei, prozesu miotikoaren osagaiak deskribatzeko. Era berean, demokrazioa eztertuko duen MiniQuest bat baliagarri izan dakieke ikasleei gizarte demokratiko baten ezaugarriak definitzerakoan.

## **Burutze** MiniQuesta

Curriculum unitate baten bukaeran garatzen dira. Ikasleek gai izan behar dute erabaki hartzeari edo ekintza plan baten garapenari zuzenduriko galdera konplexu edo sakonei ihardesteko.

**Zerk osatzen du MiniQuest bat?**

### Eszenatokia

Testuinguru erreala ezartzen du arazoen konponbide prozesurako. Ikasleak pertsona heldu baten benetako paper batean (rolean) kokatzeko balio du. Prozesuko etapa horrek "gako" batek bezala itsasten ditu ikasleak eta arazoan "sarrarazten". Eszenatokiak, halaber, ikasleek erantzun behar duten funtsezko galdera ezartzen du.

### Zeregina

Galdera multzo bat hartzen du, funtsezko galderari ihardesteko eskatzen den informazio objektibo eta erreala lortzeko diseinatua. Zeregina oso egituratua dago, jarduera klase batean edo bitan burutu behar delako. Sail honek ikasleak zuzentzen ditu Sareko berariazko guneetara, horietan ediren dezaketelako behar duten informazioa zereginaren galderei erantzuteko; horrela "oinarrizko materiala" aurretiaz ezarritako epean eta era egokian eskura dezakete. Zereginaren gaineko galderek Sarearen berariazko baliabideekin lotura behar dute izan. Ihardespenak izan ondoren, eszenatokian planteaturiko galdera zentralari erantzun diezaiokete.

### Produktua

Izenak adierazten duenez, ikasleek eszenatokian planteaturiko funtsezko galderari erantzuteko eginen dutenaren deskribapena sartzen du. Produktuak eskatzen du ikasleek beren ulermena froga dezatela. Produktuaren nolabaiteko ebaluazio baten bidez, irakasleak ulermen hori egiaztatu behar du. Produktuak eska dezake ezaguera eraikitzeko informazioaren sintesi bat egitea. Beste hitz batzuekin esateko, ikasleek arazoari begiratzeko era berria garatu behar dute. Ezaguera sorrarazten ez bada, jarduera linean egiten den lan-orri bat besterik ez da izanen eta ez, ordea, izan beharko lukeena: ikerkuntza jarduera bat. Gainera, produktuak erreala izan behar du eta ikasleari eszenatokian esleitu zitzaion papera (rola) egoki islatu. Adibidez, kazetaritza lan bat egin zezatela eskatu bazitzaien ikasleei, produktuak izan behar du prentsa zutabe bat, albiste bat, kronika bat, etab… Liburu-ilustratzaile izatea eskatu bazitzaien, produktuak izan behar du diagrama edo ilustrazio mota bat.

EZINBESTEKO KONTSULTAK

## WebQuest (WQ) Datu-Baseak

http://www.aula21.net/tercera/listado.htm 21. gelako WQ Liburutegia aitzindari izan da Espainian. WQ sorgailu bat erantsi du. [2011/06/27]

http://www.phpwebquest.org Hagitz garrantzitsua, izan ere, erabiltzaile mailako ezaguerekin bakarrik, nork bere WQak prestatu eta argitaratzen ahal ditu php formatuan. [2011/06/27]

http://www.domingomendez.es/colegio/wq/ WQ interesgarriak, Domingo Méndez irakasleak Jaime Balmes de Cieza ikastetxean (Murtzia) eginikoak. [2011/06/27]

http://www.aulastic.com/phpwq/procesa_index_todas.php C. P San Félix de Candas (Asturias) ikastetxean phpwebquest sorgailuarekin buruturiko adibide erraz eta baliagarri batzuk. [2011/06/27]

## Webquesten adibideak

Queiles ibaiari buruzko WebQuesta, Ablitasko San Babil ikastetxean eginikoa, Nafarroa.
http://centros.educacion.navarra.es/cpsanbabil/blog/webquest-el-rio-queiles/

Pitagorasi buruzko Webquesta, Manuel Sada Allo irakasleak egina, Zizurko BHI.
http://docentes.educacion.navarra.es/~msadaall/wq/index.htm

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Eskola Bidaiarien programa.
http://dpto.educacion.navarra.es/escuelasviajeras/wq/

## Miniquesten adibideak

Motrilgo (Granada) Príncipe Felipe CEIP. *Pisuz ongi gaude?*: http://www.juntadeandalucia.es/averroes/cppfelipe/investiga/peso/peso.htm [2011/06/14]

Motrilgo (Granada) Príncipe Felipe CEIP Bisitaldia Parke Natural batera: http://www.proyectohormiga.org/inv/wq/pnatural1/pnatural.htm [14/06/2011]

Abartzuzako Ikastetxe Publikoko MiniQuesta, Nafarroa: http://centros.educacion.navarra.es/cpabarzuza/webquests/nuestras-miniquests/

Beatriz Galindo (La Latina)ri buruzko MiniQuesta, Leopoldo Alas Clarin (Oviedo) BHI Be Mintegiaren kideen artean Diziplinarteko Proiektuaren esparruan prestatua, ikus: http://web.educastur.princast.es/ies/leopoldo/biblioteca2010/renacimiento/renacimiento.html [2011/06/18]

# eranskinak

# Afrikako animaliak

Dokumentu proiektu hau Mutiloako San Pedro Ikastetxe Publikoko 4 urteko ikasleekin burutu zen, 2009-2010eko ikasturteko bigarren hiruhilekoan.

## • Nola sortu zen proiektua?

Ikasturteko lehen hiruhilekoan, Haur Hezkuntzako ikasleak "El mundo mágico de Matilde" ikustera joan ziren. Gyula Urban hungariar zuzendariaren antzezle eta txotxongiloen proposamen teatral eta musikala da.




Matilde lorik ezin egin duen neskatiko bat da, animalia handi eta basati batzuen beldur baita. Munduan barna bidaia bat eginez, haren gurasoek, iratxo bihurturik, inguratzen duen mundua kontatu eta abestuko diote. Afrika da bisitaturiko eszenatokietako bat.

Antzezlanaren ondoren, Martine Perrin-en *Mira-Mira en África* liburua "maleta bidaiarian" sartu dugu, etxean irakurzaletasuna sustatzeko. Jarduera honetan lanak planteatzen ditugu lehenago, bitartean eta geroko. Maleta liburuekin familiari mailegatu aitzin, mutikoek eta neskatilek liburu hauxe hautatu zuten ikasgelan lantzeko. Hortik sortu zen proiektua, liburu bat beren animalia gogokoenekin prestatzearena. Familiei proiektuaren berri eman eta laguntza eskatu zitzaien, haien ustez interesgarriak ziren materialak ekar zitzaten.



Hainbeste jakinmin piztu zuen, ezen beste proiektu batekin luzatu zela, laburragoa, zehazki bi animalia aztertzeko: jirafa, 4 urtekoen A ikasgelan, eta elefantea, 4 urtekoen B ikasgelan.

## • Gure helburuak

- Mutikoak eta neskatxak mapa erabiltzen ikasten hastea.
- Gai batekin loturiko informazio testuak irakurriz informazioa ateratzea.
- Informazio liburuak euskarri desberdinetan maneiatzeko ohitura egokiak garatzea.
- Informazioa Interneten bilatzea, pertsona helduen laguntzarekin: animalien irudiak eta haien ezaugarriak.
- Informazioa dokumentaletatik eta filmetatik ateratzea.
- Film baten gertakizunen haria ulertzea.

## • Garaturiko edukiak

- Afrikar kontinentearen ezaugarriak: sabanaren eta oihanaren arteko aldeak.
- Oihanaren eta sabanaren kokapena afrikar kontinentearen mapan.
- Afrikar kontinentean bizi diren animaliak eta horien sailkapena, non bizi diren kontuan hartuz.

## • Jarduerak

- Ikasgelan liburu bat eginen genuela esan zitzaienean, Afrikaz eta kontinente hartako animaliez zer zekiten galdetu zitzaien. Beste alde batetik, afrikar kontinentearen tamaina handiko mapa bat aurkeztu genien. Aurkezpena egin ondoren, haurrei eskatu zitzaien afrikar kontinentea mapamundi batean identifika zezaten. Behin kokatu eta gero, kontinentea gu bizi garen lekutik zein aldetara dagoen zehaztu zen.
- Informazio materialen bitartez, oihanaren eta sabanaren ezaugarri nagusiak jakinarazi ziren. Dokumental baten zati bat ere ikusi genuen, ekosistema haien, bai eta basamortuaren ezaugarriez ohartu ahal zitezen.
- Mapa fisiko batean oihana, sabana eta basamortua kokatu eta koloreztatu genituen. Aurrena, tamaina handiko mapa bat koloreztatu zuten, gero haren gainean animaliak itsasteko erabili genuena. Ondoren, ikasle bakoitzak mapa bana koloreztatu zuten, nork bere fitxan.
- Animalien atlas batzuk erabiliz, Afrikan bizi diren animaliak zein diren ikasiz joan ziren, bai eta kontinenteko zein tokitan bizi diren ere. Identifikaturiko animalien irudi koloreztatuak aldez aurretik koloreztaturiko mapan kokatu ziren. Mapa handia bukaturik, haur baikoitzak gauza bera egin zuen, nork bere mapan.
- Haur bakoitzak animalia bat hautatu zuen eta ondotik animalia gogokoen zerrenda egin genuen.

- Bileran erabaki batzuk hartu ziren animalia gogokoen liburuan sartu behar zenari buruz, eta erabaki zen animali guztien marrazki bana behar zuela izaneta beste orri batean animaliaren ezaugarriei buruzko testu bat.
- Haur bakoitzak hautaturiko animaliaren argazkian oinarrituz, animalien marrazkiak egin ziren. Marrazkiok arkatzez gauzatu ziren, esan baitzitzaien haurrei gero fotokopiak aterako zirela eta etxean, liburua eramaten zutenean, kolorezta zitzaketela. Zirriborro batzuk egin zituzten, aukeratutako animaliaren funtsezko ezaugarriak isla zitzaten errepresentazioak lortzeko asmoz.
- Informatikako ikasgelan haurrei irakatsi zitzaien haien gogoko animalien irudiak ez ezik, baita web-orriak ere bilatzen, animalia gogokoen liburua prestatuz joateko. Hasieran, nabigatzailearen sinboloa identifikatzen lagundu zitzaien eta gainean jartzen; geroago bilatzaile bat erabiltzen ikasi zuten, animaliaren izena idatziz.
- Hezitzailearen laguntzarekin animali bakoitzaren informazioa hautatu ondotik, inprimatu egin zen eta lerroaldeak irakurtzeko saioak egin ziren ikasleek informazioa ateratzen joan zedin. Irakurri aitzin, ikasleei jakinarazten zitzaien informaziotik zer zen atera behar zutena, hau da, irakurketaren helburuak argi eta garbi jartzen ziren.
- Aipatu jarduerekin batera, ikasgelako liburutegian Afrikari buruzko informazio liburuak ipini ziren, ikasleek bilera garaian behatu eta interpretatzen zituztenak. Une haietaz baliatzen ziren ikasleen jakinminari bana-banaka erantzuteko.
- Haur Hezkuntzako Liburutegian Afrikako animaliei buruzko liburu informaziozko nahiz narraziozkoen erakusketa bat egin zen. Ikasleak astean behin joan ziren liburutegira.
- Ostiralero, proiektuaren garapenaren iraunaldian, dokumentalak eta filmak ikustera saio bat dedikatu zen. Dokumentalen kasuan, ikusi baino lehen ikasleei esaten zitzaien zeri buruz atera behar zuten informazioa eta ikusi ondoren saio bat izaten zen ikusitakoaz iruzkinak emateko eta are, batzuetan, irudikapen plastikoak ere egin ziren. Filmen kasuan, ikuskizuna bukaturik, "zineforum" saioak egiten ziren, zeinetan ikasleek adierazten baitzuten zer gustatu zitzaien filmean eta irudikapen plastikoak egin ziren.
- Eraikinen txokoan animaliak ipini ziren eta ikasleek irudikapen hiru dimentsioko irudikapen ugari egin zituzten oihanarenak bezala baita sabanarenak ere. Txokoen denbora azkendurik, eraikin haiek taldeko beste gainerakoei erakusten zitzaizkien.

## • Erabilitako elkartze eta gune motak

- Taldeak aldatu dira egin beharreko jardueren arabera, halatan, ikasgelako taldeak daude, bikoteka lan egitekoak, bakarkakoak eta maila bereko bi taldeak elkartzen zirenekoak dokumentalak eta filmak ikusteko.
- Proiektuaren jarduerak ikasgelan bezala informatika gelan, haur hezkuntzako liburutegian eta ikus-entzunezkoen aretoan ere egin dira.

## • Balorazioa eta ondorioak

Proiektuak jakinmin itzela sortu zuen ikasleen baitan, proiektuaren garapenak iraun zuen denbora guztian, Jakinmin hori agerian gelditu zen ikasleen joko espontaneotan, eta hori ez da beste motatako proiektuetan suertatzen.

Azpimarratu behar da, halaber, proiektuaren bukaera irakasleok ezarri genuela, ikasleek gai berari buruzko galderak egiten jarraitzen baitzuen.

Proiektu hau balioesten dugu zeren funtsezko helburuetako bat ikasleak Internet bidezko informazioa bilatzen abiaraztea izan baita (irudiak nola web-orriak), informazio testuen irakurmen estrategiak erabiltzea eta, orobat, dokumentalak ikusiz informazioa eskuratzea. Ikasleen adinarengatik, buruturiko jarduera guztiak arras arautuak izan dira eta helduek zuzenduak.

Eskola liburutegiaren erabilpena ongien integratu dugun proiektua izan da.

## PROIEKTUAREN GARAPENEAN ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA


### Web-orriak

- http://www.nature-pictures.org/sp/collection/103/
- Naturaren argazkien web-orria
  http://www.ikuska.com/Africa/natura/fauna/index.htm

### Filmak

- Darnell, E.; McGrath, T. (2005): *Madagascar*, Universal Pictures Iberia, Madril. Walt Disney Pictures (2003): *El rey León*, Walt Disney Home Entertainment, Madril.

### Dokumentalak

- National Geographic-aren DVDa: *Gigantes de África* y *Entre los chimpancés.*

## Ezaguera liburuak


- National Geographic Society (1998): *El maravilloso mundo de los animales*, RBA, Bartzelona.
- Matthews, Derek (2009): *Sonidos de la selva*, SM argitaletxea, Madril.
- Posen,Nick (2009): *¡Peligro en la selva!*, Macmillan, Madril.
- *BBC Fotógrafos de la naturaleza*, Crescent, Madril, 2006.
- National Geographic Society (1995): *Paraísos del mundo animal*, RBA, Bartzelona.
- *Enciclopedia visual de los seres vivos*, El País, Madril, 1993.
- *Mi atlas Larousse de animales*, Vox argitaletxea, Madril, 2010.
- Wood, Jenny (1990): *Las selvas*, S.M argitaletxea, Madril.
- Dietz, Jame M. (1994): *Animales gigantes de África*, Destino, Bartzelona.
- "Mis animales favoritos" bilduma, SM-El País argitaletxea, Madril.
- Andrade Barbosa, Rogelio (2009): *ABC del continente africano*, SM, Madril.
- Blackford, Harriet (2009): *La historia de tigre*, Alquería argitaletxea, Bartzelona.
- Blackford, Harriet (2009): *La historia de elefanta*, Alquería argitaletxea, Bartzelona.


## Kontaketa liburua


- Pallejá, Jorge de (2009): *Tim y Tom en África*, El Cobre argitaletxea, Bartzelona.
- Malo, Roberto (2009): *Tanga y el leopardo*, Comanegra argitaletxea, Bartzelona.
- Casas, Lola (2007): *Ernesto*, Serres argitaletxea, Bartzelona.
- Mantegazza, Giovanna (1995): *Alto, largo, grueso*, Madril, Edaf.
- Moser, Erwin (1990): *Chiquitín el elefante*, León, Gaviota.


## Musika


- Grosléziat, C.; Nouhen, E (2007): *Canciones infantiles y nanas del baobab*, Kókinos argitaletxea, Madril.

## II. ERANSKINA

# Degas, Tchaikvosky eta balleta
# Gaitasunak informazioan eskola liburutegi bateko eguneroko praktikatik

Rosa Piquín

Mirari bat da jakin-minak bizirik iraun izana hezkuntza araututik pasa ondoren

**Albert Einstein**

Eskola liburutegia "ikaskuntzari laguntzeko baliabideen eta zerbitzuen zentro gisa ulertuz, irakurketa, idazketa, ikerketa eta informazioaren tratamentuarekin zerikusia duten gaitasun guztiak garatzeko ingurune ezin hobea eta pribilegiatua da"[1] eta proiektu dokumental Integratuak tresnarik hoberenetakoak dira, hala komunikazio gaitasunak garatzeko, nola alfabetatze berriei laguntzeko (ALFIN, alfabetatze digitala, euskarrietan hezitzea...).

**Irakurketa**, bereziki HGL (haur eta gazte literaturazko) obra on eta era desberdinena, tipologia eta formatu desberdineko testuena; **idazketa**, ikasleek berek, teknika eta euskarri desberdinak erabiliz, sortu eta autoeditatu dituzten lanak, urte batzuetatik honera, **erantsiak daude** nire musika eta artearen irakaslan ohikoari, **arloko curriculuma ikasteko funtsezko tresnak gisa.**

Arte arloak, dituen berezko edo /eta berariazko ezaugarriengatik, aukera ematen du **informazio erreferente bakar gisa testuliburu bat** eduki beharrik ez izateko. Beste alde batetik, ikastetxeetako egiturazko aldaketak ere (PC tabletak, arbel digitalak, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ikasgela batzuk eta bereziki eskola liburutegiaren hornidura informatiko ona) lagungarri dira ezin konta ahala iturrietara sarbidea izateko: Internet, batbederak prestaturiko egile tresnetara sarbide kolektiboa, DVDak...

> Eskola liburutegia heziketa baliabide bat da curriculumaren eta ikastetxeko heziketa proiektuaren zerbitzura, eta gaur egun informazio baliabideen eta zerbitzuen gune dinamikoa dela ulertzen da, lehentasunezko eginkizuna duena irakas-ikaskuntza prozesuan, eta horrela delarik tresna bat da, funtsean izaera pedagogikokoa, irakaslanerako mesedegarria. Baliabide zentro gisa jardun behar du, **dizipli-**

[1] *Leer.es II. Kongresuko ondorioak* [linean] en: http://leer.es/files/2010/11/conclusiones_congreso.pdf [2011ko urtarrilaren 14ko kontsulta]

> **na arteko proiektuetarako laguntza** izan dadin, bai eta ikasleen eta irakasleen elkarlanerako ere, ikasgelako jarduera aberastuz eta ikastetxeko programetan parte hartzea erraztuz.[2]

Helburua da ikasleek beren ikaskuntza prozesuaren egile gisa duten eginkizun eraginkorra azpimarratzea, ohartzen garelarik maistra gisa jokatzen dugun rol zoragarri eta pribilegiatuaz, horien prozesuan bitartekari izanez, kulturaren adierazpen guztietara hurbilaraziz. Behin eta berriz aipatu behar da ikasbide horiek **berariazko lan proiektuekin** uztartu beharra, izan ere, ikasten ikas daiteke baina betiere ikasteko esperientzia jakin batzuen bitartez.

Gaur egun, informazioa dokumentu anitzetan dago. Gure ikasleek zuzenean dokumentazioarekin lan egitean ikasiko dute nor bere ingurune sozialean pertsona gisa eta informatu beharra aitortzen duen hiritar gisa garatzen, informazioa eskuratzean garrantzizkoa dena eta ez dena bereizten, informazioa kritikoki ebaluatzen, gai izanik irakurtzen duena ulertzeko eta interpretatzeko, eta edozein motatako testu bat, euskarria edozein dela ere, trebeki irakurtzeko.

Eta hori guztia, zernahi arlo edo irakasgairen heziketa praktikaren esparru orokorraren barnean, **eskola kulturari dagokion eguneroko lanaren testuingurutik atera gabe**, ikasteko bestelako modu bat da, ezagueren transmisioan dinamikoagoa, eraginkorragoa eta partaidetza handiagokoa.

Proiektu Dokumental Integratu honetan parte hartu duten haurren adina (6-7 urte) kontuan edukiz, irakaslea informazio erreferente nagusia izan da eta, orobat, irakurketa eta ikaskuntzaren hornitzailea. Ezusteko atsegina izaten da beti norbera konturatzea irakasten dien horiengatik ere zerbait ikasten dela.

Beste alde batetik, "testu artistikoak ulertzeko beharrezkoa da berariazko ikasketak egitea, zeinen artean azpimarratzekoa baita munduari eta, oro har, kulturari buruz aldez aurretik bakoitzak dituen ezaguerak bizkortzen jakitea".[3] Irakurtzen ikasten ari denak bidean dituen oztopo guztiak gaindi daitezke eskarmentu handiko eta konfiantzazko irakurle heldu baten laguntza eta etsenplua izanez gero (Aidan Chambers), eta haur eta gazte literaturazko (HGL) liburu onen laguntzarekin, aukera ematen digutelako "milaka pertsona desberdin bezala izan gaitezen eta, hala ere, gu geu izaten jarrai dezagun" (C. S. Lewis).

---

[2] ◢ ECI/979/2007 AGINDUA, apirilaren 3koa, 2007. urtean ikastetxeetan liburutegiak dinamizatu eta berritzeko praktika egokien lehiaketa nazionalerako deialdia egiten duena. Hezkuntza eta Zientzia Ministeriora. 2007/05/14ko *BOE*, 90 zk., 16533 orr.

[3] ◢ *Leer.es II. Kongresuko ondorioak*. Linean, hemen: http://leer.es/files/2010/11/conclusiones_congreso.pdf [2011ko urtarrilaren 14 kontsulta]

Xedea da, Degas, Tchaikovsky eta balletari buruz ikertzeaz gainera, Lehen Hezkuntzako aurreneko zikloko ikasleak –adinari eta curriculum gaitasunari dagokien mailan- trebatu daitezela bilatze mekanismoekin, informazioaren tratamenduarekin eta adimen lanarekin, XXI. mendeko eskola liburutegi baten egunerokotasunak eskatzen duen bezala.

Eta ez hori bakarrik, gainera ikasi genuen nola Degasen margolaritza musikaren bidez adierazten ahal den eta Tchaikovskyren musika, berriz, frantziarraren margolanen eta haren ballet dantzari ospetsuen bidez. Era berean, bizi genuen "mugimendua musika estimuluari lotuz gero, horrek musikaren ulermen osoa ahalbidetzen duela" (Maria Fux) eta ikasi genuen balletaren bidez historiak kontatzen ahal direla.

Interesatzen zitzaidan, halaber, Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako haurrek gara zitzatela ikuste eta entzutezko gaitasunak (behatu eta azaltzea; aditze selektibo eta arretatsua), ezagut zezatela Artearen eta gizartearen arteko harremana, beren sentipenak erabil zitzatela adierazpen artistikoaren iturri gisa eta, batez ere, kontura zitezela marrazkiek (maisu-lan handiek eta haurrek berek eginiko ekoizpenek) historiak kontatzen dituztela, erretratuak jendeaz mintzo direla eta Tchaikovskyren musikak hunki gaitzakeela.

Proiektu honetan hauek izan ziren **azken dokumentuak**:

- **Erakusketa bat**: Degasen margolanen erreprodukzioekin eta ikerketan erabilitako material dokumentalaren parte batekin (fikzio eta ezaguera liburuak, arte entziklopediak, aldizkariak…), bai eta ballet materialak ere, hala nola, tutuak, maila kotak eta ballet txapinak (punta erdikoak eta puntakoak).
- **Degasen estiloko neska dantzarien margolanen** erreprodukzioak.
- **Arte kritika bat**, Felmanen Artearen estimoa oinarritzat harturik.
- **Degas, Tchaikovsky eta …haien lagunak, neska dantzariak** gaiari buruzko monografia xume bat.
- *Saiakera*1873-1878 eta *Neska dantzari kulunkaria (Neska dantzari berdea)* 1877-1879 margolanen errepresentazio geldia.

Eguneroko praktika honen helburua da eskola liburutegitik curriculumaren alderik berezkoenei laguntzea, hau da: zer, nola, zertarako, noiz irakatsi eta ebaluatu, ondokoak kontuan izanik: "berbera eraldatzen saiatzen den eskola alde batetik, irakaslanean molde berriko curriculumarekin, hiritar ikasien prestakuntza kritikoa azpimarratzen duen horrekin, engaiaturik ari diren profesionalak bestetik, bai eta askatasun indibidual eta kolektiborako ahalmen itzelezko elementua den kulturaren ideia demokratikoa ere, horrek guztiak eskatzen du liburutegi bat izatea, eskuarki betetzen dituenak baino eginkizun berriagoak eta garrantzitsuagoak betetzeko gai izanen dena". [4]

[4] ◢ Castán, G. *Las Bibliotecas Escolares (soñar, pensar, hacer)* Sevilla: Díada arg., 2002, 129 orr.

Xehetasunez adierazten ditut hemen alderdi batzuk, hezkuntza praktika hau proiektu dokumental integratu bat[5] izan dadin ahalbidetzen dutenak, gaitasunak garatze aldera informazioan, komunikazio gaitasunetan eta irakurtzeko trebetasunetan.

A. Zer bilatu nahi dugu?, eta zertarako?
B. Aurretiazko ezaguerak hautematen ditugu.
C. Zer jakin nahi dugu?
D. Eskura ditugun baliabideak eta informazio iturriak bilatzen ditugu.
E. Dokumentuak hautatu eta informazioa irakurtzen dugu.
F. Informazioa prozesatzen dugu.
G. Informazioa komunikatu/aurkezten dugu.

- Beti bezala, lehendik **dakitenetik** abiatuko naiz




Neskatila batek bakarrik zekien nortaz hitz egin behar genuen, lehendik irakurria baitzuen liburutegian **Degas eta neskatiko dantzari ttipia**, L. Anholtena[6], besteentzat horrelako zerbait zen:

> "Balleta da neskek oin puntetan dantzatzen duten dantza bat", "eta mutikoek ere bai baina maila estuekin", "oso zaila omen da dantzatzea", "anitz praktikatu behar da".

Tchaikovskyren musikari dagokionez, haur batzuk esaten zuten "hori gure aitak dauka, sakelako telefonoan, deitzen diotenean horixe entzuten da", "hori maitagarriena da, lehengo egunean ikusi genuena" [7]

## • Zer jakin nahi dugun

Maria, neskatiko dantzari txikiaren laguna den mutikoaz gehiago jakin nahi dugu; zergatik dagoen horren haserre, zergatik neska dantzariak margotzea horrenbeste gustatzen zaion, dantzariak baino ez baitzituen margotu; guk geuk ere haren estiloan nahi dugu margotu...

Nola ikasi zuen musika hori egiten, ea balleta asko gustatzen zitzaion, zenbat musika konposatu zuen, Mozartek bezala hark ere txikitatik ikasi ote zuen musika jotzen...

Balleta non dantzatzen den, ea neskek soilik dantzatzen duten, ordu anitz praktikatu behar den, ea oinetako horiekin oinak mintzen diren...

---

[5] ◢ Piquín, R., *Proyectos Documentales Integrados. ¿Qué son y cómo hacerlos?* [linean]

[6] ◢ Anholt, L. ,*Degas y la pequeña bailarina: un cuento sobre Edgard Degas*., Bartzelona, Serres, 1996/1997, 1. ed./ 1. berrinp.

[7] ◢ *Fantasia,* 1940. Ben Sharpsteen (zuz.), Joe Grant & Dick Huemer (Gidoia). DISNEY.

## • Informazioa nola lortu

Erakusketan ipini dituzun liburu horiek irakurriaz, Reportero Doc irakurriaz, arte liburuak ere bai, Interneten bilatuz, Youtuben bilatuz.[8]

Nire ahizpa Belindak balletari buruzko idazlan bat egin zuen eta eskolako liburutegian dago.[9]

Proiektu honetan, neska-mutikoen adina kontuan hartuz, **irakaslea informazio iturri inportantea izan zen**: arte liburuak eta Web-orriak kontsultatu ondoren haurren curriculumaren gaitasun mailara egokituriko fitxa bat prestatu nuen eta handik atera zituzten beren Monografia egiteko beharrezko datuak.

Feldmanen oinarrizko ereduari jarraikiz arte-kritikari izateko GIDOI egokitu bat prestatu nuen.

Gainera, haurrei eskura jarri nien dokumentu ñimiño bat Tchaikovskyren Musika gaiari buruzkoa, konpositore klasikoen aro erromantikoaren informazio egokituarekin.

Deigarrienetakoa egin zitzaien Web-orri bat, www.zapatillasrosas.es, izenekoa, *Balletaren mundua*[10] arretaz irakurri ondoren kontsultatu genuena, batez ere Ballet Hiztegia atala.

## • ALFIN, informazioaren irakurketa eta tratamendua

Bi hilabetez irakurri zen ez soilik musika orduan, baita ikasgelako eguneroko "irakurketa denboran" ere. Irakurketa horren arduradunak tutoreak izan ziren, haiek hautatu baitzuten irakurketaren gidatik, haien ustetan haurrei gehien gustatuko litzaizkiekeen irakurketak.

Galdera zerrendak erabili genituen gaitzat **Degasek zernolako gauzak margotu zituen?** hartuz.

**Arte-kritikari** anean aritu gara, Feldmanen gidoiaren egokitzapena erabiliz, *Neska dantzariak barran praktikatzen* 1876-1877 The Metropolitan Museum of Art, New York; *Opera orkestra*. 1870. Musée d'Orsay. Paris.; *Neska dantzariak eszenatokian* 18779-1891. Christie`s Collection. Londres.

---

8 ◢ Ez dezaket aipatu gabe utzi Cristian Augustok nik, ezjakinarena eginez, galdetu nionean, baina zer da Youtube hori?, nola bilatzen da hor balletarena?, 2. mailako bere ikaskideei eta niri esan ziguna: *"jartzen duzu Youtube Georglean eta ikusten dituzu nahi duzunaren gaineko bideoak, eta bilatzeko bada kutxatxo bat eta han idatzi behar duzu nahi duzuna, adibidez BALLETA, eta gero grabatzen duzu CD batean eta guri jartzen diguzu gelan edo guk ikusten ahal dugu geure ordenagailuetan".*

9 ◢ Rodríguez, B. eta Pariente, A., *El ballet. Monografía para la asignatura de Música de 2º de ESO.* Sección "trabajos de los alumnos". Pablo Iglesias I.P. Eskola Liburutegia, 2009.

10 ◢ Masini, B.; Not, S., *El mundo del Ballet.*, Madril, Anaya, 2007.

Hura izan zen **Monografia** prestatzeko tenorea, iruditu zitzaizkigun datu interesgarrienak azpimarratuz, Zer da Balleta?, Ballet eskola, Neskatiko dantzari ttipia, Elkarrekin dantzatuz, Dantzatzeko prest.

Bistan da, **Tchaikovskyren musika klasikoa entzuteko** momentua izan zen, dantzariak Degasen erara margotzen genituen bitartean.

▸ *Intxaur-kraskagailua, I. ekitaldia , I. koadroa, 3. eszena, "Lauhazka txikia haurrekin eta gurasoen sarrera".*
- Royal Concertgebouw Orchestra. Zuzendaria: Antal Dorati.
- *The Nutcracker/The Sleeping Beauty* (Philips Duo) CDaren zatia. Grabazioa. Amsterdam, 1975. Philips Classic Production, 1994

▸ *Eugenio Oneguin, III. ekitaldia, 9. eszena, "Polonesa".*
- Berliner Philharmoniker. Zuzendaria: Herbert von Karajan.
- *Karajan conducts Tchaikovsky* (Deutsche Grammophon) kutxatilaren zatia Grabazioa: Berlín, 1970.
- Poydor International GmbH, Hamburgo, 1972

▸ *Oihaneko loti ederra, Op. 66, I. ekitaldia "Eszena" (Jauregiko loratégia).*
- London Symphony Orchestra.
- Zuzendaria: Anatole Fistoulari
- *The Nutcraker/The Sleeping Beauty* (Philips Duo) CDaren zatia
- Grabazioa: Londres, 1962
- Philips Classic Production, 1994

▸ *Zisneen aintzira, Op. 20. II. ekitaldia, Obertura, moderato.*
- Boston Symphony Orchestra
- Zuzendaria: Seiji Ozawa
- Fragmento del CD *Tchaikovsky: Swan Lake* (Deutsche Grammophon) Cdaren zatia.
- Polydor International GmbH
- Hamburgo, 1979




Behin eta berriz aipatu genuen irudien eta bideoen erabileraren garrantzia. 21 galdera-txartel prestatu nituen, gero Degasen margolanen erreprodukzioen lamina eta irudietan ipini zirenak. Bilatu behar zuten margolanaren izena, bai eta haren data eta zein museotan dagoen.

Horretarako *Bailando con Degas*[11] informazio liburua erabili genuen, margolanen zerrenda dakarrena, liburuan ageri diren ordena berean, eta

denbora puska bat ere eman genuen, saio jarraitu batzuetan zehar, Google bilatzailean irudiak bilatzen. Bikoteka jarri eta jakinarazten nien non sartu behar zuten eta zein gako-hitz erabili: DANTZARIAK-DEGAS.




Erakusketako galderari zegozkionak hautatu ondoren, irudian kokatzen ziren eta han aurkitzen genuen zein Web-orriri lotzen zaizkion, pantailako eskuin aldeari erreparatuz. Web-orri horietan sartzean margolanaren izena bederen aurkitzen dugu.




[11] ◢ Egilea: Merberg, Julie
Ilustratzailea Bober, Suzanne
Bartzelona, Serres, 2005, 1. ed., 1. inp.
Bilduma: Haurrak eta artea
Generoa: Informazio liburua
Orientabidea: Liburuaren hondarrean margolan bakoitza identifikatzen da

Ederki poztu ziren jakin zutenean *Neskatiko dantzari ttipia* egiaz izan badela eta Parisen dagoela. Arreta jarri genien, orobat, irudi honi datxezkion datuei.



Irudi honekin batera datozen datuei ere erreparatu behar diegu:

................................................................................

- Edgar Degas (1834-1917) *14 urteko neskatiko dantzari ttipia.*
- 1921 eta 1931 artean, modelo izan zen 1865 eta 1881 artean.
- Brontzezko estatua, kolore desberdinetako patinaduna, tulezko tutua, satin arrosakarazko lazoa adatsean, zurezko idulkia.
- Gar. 98; Zabal. 35,2; Sakon. 24,5 cm.
- París, Orsayko museoa © Musée d'Orsay, dist. RMN / Patrice Schmidt.

................................................................................

Eta luzaro eta zehazki mintzatu ginen zera ulertzeko:

- Obraren egilea Edgar Degas dela.
- Urte haietan bizi izan zela.
- Obraren izena "14 urteko neskatiko dantzari ttipia" dela.
- Degas hil ondoren egin zela (nola ote?).
- Mariak margolariaren aitzinean posatu zuela 1865-1881 artean (zer neskatzarra!).
- Esaten digute zerez egina dagoen estatua.
- Egiazko tutua duela eta lazo arrosakara adatsean.
- Zer ote da Gar. 98; Zabal. 35,2; Sak. 24,5 cm hori? Gu baino txikiagoa da, guztiok 1,10etik goiti gaude-eta; 5 urtekoen gelakoak bezalakoa ote da?
- Parisen dago D'Orsay izeneko museo batean.
- *Zer da biribilki baten barnean dagoen c moduko hori? Zer esan nahi du?* –copyrightaz mintzo dira. Aukera honetaz baliatu naiz beste irudi batzuetan bilatzeko bai eta proiektuan zehar irakurtzen ditugun liburu batzuetako ilustrazioekin batera ageri diren argazki kredituetan ere.

Eskola liburutegiko saio batean Ikasleen Lan Atala ezagutzen saiatu ginen, han genuen materiala ikusteko eta lehenago DBHko 2. mailako ikasleek Musikarako prestatu zituzten txostenak bilatzeko. Horrek oharrarazi zien besteak ez bezalako saila dela (gehiago jakiteko liburuen eremua; historiak kontatzen dituzten liburuena, DVDen eremua, Interneten kontsultatzeko eremua…) eta liburutegia barruti eta sail desberdinetan anatolatua nola dagoen.

Aurten, liburutegirako opari gisa, Orbis–Fabbri Ballet Handien bilduma osoa jaso dugu, 30 titulu guztira, bertsio osoekin, adibidez, Zisneen aintzira (Bolshoi Antzerkiaren balletaren eskutik); Intxaur-kraskagailua (Bolshoi antzokitik), Loti ederra (Bolshoi antzokitik), Errauskine, Prokofiev-ena (Lyon Opera Balletaren eskutik) eta Fonteyn eta Nureyev bezalako artista handien bertsioak (Royal Opera House Coven Garden). Oparituriko material hori anitz erabili dugu proiektuan barna, aurretiaz hautaturiko zati laburtxoak, 2-3 minutukoak, ikusiz.

Kainoia eta eramangarria erabiliz eta musika klasean elkarrekin ikusi ahal izateko Youtuben bilaketa bat egin ahal izan genuen, gako-hitz hauetaz baliatuz: AINTZIRA – ZISNEAK.

Eskuragai zeuden bideo guztien artean hauek hautatu genituen (iraupena kontuan hartuz betiere):

- P. I. Tchaikovsky, *Swanlake*, Margot Fonteyn y Rudolf Nurejev II
  http://www.youtube.com/watch?v=ykS1waEUrBw&feature=related
- *Swanlake*, Nureyev
  http://www.youtube.com/watch?v=17Ak4MGYMvw&feature=related
- *Una Noche en el Lago de los Cisnes* - Pas de Quatre
  http://www.youtube.com/watch?v=208-mLoQt_U

Musika irakasle naizen aldetik, bereziki hunkigarri egin zitzaidan Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako haur hauen erreakzioa artista handien ballet zatiak ikustean, horietako batzuk Youtubetik deskargatuak, bai eta DVDak edo Bideoak ikustean ere. Berehalaxe hasi ziren mugitzen eta neska-mutil dantzarien pausuak imitatzen. Nureyev bereziki inportantea izan zen *"balleta ez dela nesken kontua bakarrik"* baloratzeko.



Nahikoa leku izan genuen soinu harekin mugitzeko eta anitzetan bideoak gelditzen genituen postura eta koreografia desberdinei erreparatzeko.

Hainbat saiotan jolasean aritu ginen, protagonisten rol desberdinak elkar trukatuz, Tchaikovskyren argumentuarekin Loti Ederraren balleta antzezten, *Loti Ederra* liburuaz baliatuz. Antzerki-liburu



honek, eszenatokiarekin, balletaren pertsonaia guztiekin eta zatirik adierazgarrienak jasotzen dituen CD batekin, ballet zoragarri hau bizi-bizi sentiarazi zigun.

4 zenbakidun fitxako informazioa sakonki aztertzeko: *Degas eta neskatiko dantzari ttipia* izenburuko liburutik ateratako fitxa biografikoa, nik egina, irakurketarako estrategia xume batzuk abiarazi nituen: aurrena ahots ozenez irakurri nien, esan nien ohart zitezela nolabait nabarmendutako hitzik (letra lodian) ba ote zegoen edo ez, hortik aitzinera **testua markatzen** aritu ginen, bai fitxaren *ertzeko oharrekin* (informazio zerrenda bat eginez, ulertzen ez dutena bilatuz eta markatuz) eta baita ere *testua zenbakituz* bertan ageri diren gertakizunen hurrenkera adierazteko. Hondarrean, **testua berregin beharra planteatu nien, estiloa aldatuz**. Iradoki nien guztien artean gutun bat bidaltzea, Degasen bizitzaz ikasi genuena kontatuz, Teresa Méndezi, Haur Hezkuntzan izan zuten eta dagoeneko ikastetxe honetatik joana den irakasleari, zeinetaz oroitzapen ona baitute. Era horretan, seguru nintzen ahaleginduko zirela informazioa ulertzen, gero gutun hartan gauzatu ahal izan zezaten.

[12] ◢ Seddom, V. eta Mahoney, J. *La bella durmiente*, Madril, SM, 2008.

Beste alde batetik, fitxa hori bera aprobetxatuz, ahalegindu nintzen denbora puska batez kontura zitezen nik nola agerrarazi nituen Web-orriak, nondik erdietsi nuen Edgar Degasi buruzko informazioa. Arreta erakarri nien soilik URL helbideaz, eta haiek kontsultatu nitueneko egunaren data agerrarazi nuen.

## • informazioa komunikatzen dugu

- Erakusketa prestatu genuen eta beste ikasgeletako ikasleei adierazi genien. Neskatikoetako batek *Degasekin dantzan* irakurri zien Haur Hezkuntzako haur batzuei. Erakusketa hori hilabetez utzi genion maileguz San Esteban de Praviako Virgilio Nieto IPko liburutegiari, harreman estuak baititugu elkarrekin (Programazio bateratuak, liburutegien arteko maileguak, animazio eta pertsonaien elkar trukea) Eskola Liburutegien minisarearen barnean, zeina, duela urte batzuetatik eta gure ekimenez, Asturiasen eratu baitugu (Elena Sánchez Tamargo IP, Pola de Laviana; Baudilio Arce IP, Oviedo; 5. BHI, Avilés, Veneranda Manzano IP, Oviedo) eta beste Autonomi Erkidegoetako Eskola Liburutegiekin (Miguel Servet IP, Fraga-Huesca; Beatriz Galindo BHI, Madril).

- Hirugarren mailakoei, arte-kritikari gisa, gure iritziak irakurri genizkien, *"Dantzariak eszenatokian"* dastatu ondoren eta margolanaren aitzinean.

- Azaleztatze lau-lau batekin argitaratu genuen *Degas, Tchaikovsky eta… haien lagunak, neska dantzariak* gaiari buruzko Monografia personala. Etxera eraman zuten gurasoei proiektuaren berri emateko. Bertan biltzen dira hauek: *Zer da Balleta?, Balleta eskola, Neskatiko dantzari ttipia, Elkarrekin dantzatu, Dantzarako prest.* Denbora eman nuen hasieran AURKIBIDEA finkatzeko, adieraziz zein orrialdetan dagoen ilustrazio bakoitza, informazioa eta erabilitako BIBLIOGRAFIA (edo horren parte bat bederen), azkenean ageri dena benetako liburuetan bezala.

- Bistan da, aldez aurretik denbora bat eman nuen ohartarazten balletari buruzko argibideak ematen dizkiguten liburuek *(Balletaren nire lehen liburua, Ballet eskola, Ikasi balleta, Tchaikovsky eta intxaur-kraskagailua)* aurkibide bana izan ohi dutela eta bukaera aldera diskoen edo ilustrazioen edo margolanen erreprodukzioen zerrenda bat.

- Bigarren mailako haur batzuek artikulutxo bat prestatu zuten, 41. zenbakiko El Lenguaterorako, Tchaikovsky eta Degasen biografien gainean (paperezko edizioan argitaratu ziren, edizio digitalean ez baitziren bildu gelako haur guztien ekarpenak, beste biografietakoak baizik, izan ere, hamabost egunetan, eta eskola liburutegiak gelari milegutan utzitako Parramón argitaletxeko Biografia bildumaren ekarpenari esker, tutoreak landu ziuen gai hauek: *zer da biografia bat? Nola deitzen zaie biografiak jasotzen dituzten liburuei? Eta nork berea ere egin zuen).*

## • Ebaluazioa

### 1. Haurren ebaluazioa erraza izan zen, ondokoei erantzutea:

- Gustatu zitzaidan / ez zitzaidan gustatu Degasen erara margotzea.
- Entzun nuen musikatik zein gustatu zitzaidan:
  - Zisneen aintzira
  - Oihaneko loti ederra
  - Intxaur-kraskagailua
  - Polonesa
- Zein margolan gustatu zitzaidan eta zergatik?
- Gustatu zitzaidan / ez zitzaidan gustatu balleta dantzatzea?
- Esazu irakurritakoen artean zein liburu gustatu zitzaizun gehien eta zein ez.
- Esazu zer interesatu zitzaizun Degasen proiektu honetatik

### 2. Irakaslearen ebaluazioa korapilotsuagoa izan zen:

Ahalegindu nintzen baloratzen prozesua doitu ote zitzaion hasieran aurreikusitakoari. Jarduerak eta proposamenak egokitu ote ziren ikasleen curriculum gaitasun mailara eta haien gaitasunak (bisualak, entzutezkoak, plastikoak, mugimendu eta komunikaziozkoak) garatzeko asmoz ongi planteaturik ote zeuden.

Batez ere, proiektuaren garapenak erantzuten ote zion ala ez nire hastapeneko planteamenduari (Arteak gizatiarrago bihurtzen gaitu, dantzak eta balletak bide ematen digute historiez gozatzeko, mugimenduak musika errazago barneratzen laguntzen digu eta ezinbestekoa da gure ikasleak Kulturara hurbilaraztea).

Denboratasunari dagokionez, gauza batzuetarako denbora gehiago beharko nukeen, izan ere, zortzi musika saio eta eskola liburutegiko irakurketa denborak hagitz murritzak izan ziren nik margolari frantziarraz, errusiar konposatzaileaz eta batez ere BALLETAz dudan grina 1. eta 2. mailako haurrei sentiarazi eta transmititzeko.

Irakasleak prestatu eta ikasleen artean banaturiko informazio fitxa

## • Tchaikovskyren garaiko musika

Degasen ezin zuen musika entzun margotzen ari zen bitartean –guk ez bezala- eta, garai hartan walkmanik, irratikasetik eta horrelakorik ez zegoenez, musika Parisko kaleetan adituko zuen, kafetegietan, elizaren batean edo pianoa joko zuen ezagunen baten etxean.

Degas musika klasikoaren aro Erromantikoan bizi izan zen (1820-1900). Konpositore erromantikoak eta Degasen garaiko margolariak, inpresionista nahiz post-inpresionistak, oso antzekoak ziren.

Historia bat kontatzea inspirazio iturri izan zen denbora haietako margolari eta konpositoreentzat: mugimendua eta sortzen diren sentipenen adierazpena.




Guk entzunen dugun konpositore erromantikoa**Tchaikovsky** da.[13]

*Haren musika entzuten dugun bitartean liburu hau irakurriko dizuet, haren musikaz eta obraz zerbait gehiago jakin dezagun…*

## • Artea estimatzeko feldmanen eredu oinarrizkoa

### 1. Azalpena

- Aipa ezazu margolanean ikusten duzun oro.
- Bada jenderik, animaliarik, gauzarik, landarerik, alorrik, itsasorik, zerurik?
- Zein motatako lerroak, formak eta koloreak ikusten dituzu?

### 2. Analisia

- Margolanaren zein parte iruditzen zaizu hurbilena? Eta urrunena?
- Bada zerbait beste guztia baino handiagoa?
- Kolore ilunak? Kolore beroak ala kolore hotzak?

### 3. Interpretazioa

- Zure ustez, artistak zer esan nahi zuen margolan honekin?
  - Historia bat kontatu du.
  - Sentipen bat adierazi du.
  - Berari gustatzen zaion zerbait erakusten digu?
- Zure ustez, zer esan nahi du margolanaren izenburuarekin?
- Margolan honek zer sentiarazten dizu?

### 4. Iritzia

- Margolan hau inportantea iruditzen zaizu?
- Gustatzen zaizu margolan hau, ala ez? Zergatik ala zergatik ez?

---

[13] Stephane,O. y Voake,Ch, *Piotr Ilych Tchaikovski,* Bartzelona, Combel, 2009.

Irakasleak prestatu eta ikasleen artean banaturiko informazio fitxa

## • Zer motatako gauzak margotu zituen Edgar Degasek

*Degas eta neskatiko dantzari ttipia* irakurri ondoren, Anholt, J., Bartzelona, Serres, 1997 eta Degasen margolan eta marrazki batzuk *Famous Artists Gallery: Edgard Degas* Web-orrian ikusirik hemen: http://www.famousartistsgallery.com/gallery/degas-do.html (2010eko martxoaren 15eko kontsulta) irakasleak eta ikasleek elkarrekin prestatu genituen galdera zerrenda hauek. Hortik aitzinera, haurrek berek hautatu zituzten beren marrazkietarako gaiak:

### 1. Nolako gauzak margotu zituen Degasek?

- *Neska dantzariak ikasgelan*
- *Neska dantzariak antzokian dantzan*
- *Ama eta neska dantzaria itxaroten*
- *Zaldiak*
- *Neska dantzariak barran*
- *Bere burua*
- *Ezagunak*

### 2. Zergatik hautatu zituen gai horiek?

- *Ongi ezagutzen zituen gauzak zirelako*
- *Inguruan zituelako*
- *Interesgarriak iruditzen zitzaizkiolako*
- *Gogoko zituelako*
- *Interesgarriak zirela pentsatu zuelako*
- *Adiskideei eta familiakoei erakutsi nahi zizkielako*

### 3. Degasen ereduari jarraikiz zer margotzen ahal dugu guk?

- *Gogoko zaigun zerbait*
- *Ederra iruditzen zaigun zerbait*
- *Garrantzitsutzat jotzen dugun zerbait*
- *Konpartitu nahi dugun zerbait*
- *Gu guztiok dantzan musika gelan*

*Degas y la pequeña bailarina* izenburuko libururik ateratako fitxa biografikoa, ikasleei banatutakoa.

## • Edgar Degas (1834-1917)

Hilaire-Germain-Edgar de Gas, Edgar Degas izenez ezagunagoa, margolari eta eskultore frantziar bat izan zen, **Parisen jaioa**, bankari baten seme nagusia. Gaztetan marrazketa ikasi zuen Parisen eta Italian. Eta laster ospetsu egin zen zaldi lasterketen eta **ballet klasikoko neska dantzarien** margolanei esker. Grabatzaile eta argazkilari ere izan zen.

**Margolan ugari saldu zuen** eta beste artisten obren bildumatzaile handia izan zen (esate baterako Van Gohgen Ekiloreak). Behin ere ezkondu ez bazen ere, bere bildumako margolanak "seme-alabatzat" hartzen zituen.

Degas aise haserretzen zen eta jende anitz atsekabetzen zuen, nahiz eta gero barkamena eskatu. Orduak eta orduak ematen zituen behatzen eta bozetoak egiten, erabat murgilduta bere lanean.

1880an **modelo gisa Marie van Goethen** hartu zuen, Parisko Operako ballet Eskolako ikasle gazte bat.

Neskatiko dantzari ttipiaren jatorrizko eskultura gaur egun Parisko Louvren dago ikusgai. Degas hil ondoren, moldea brontzez urtu eta **20 kopia baino gehiago egin ziren**. Haietako batzuk ederresten ahal dira egun ere beste museo handi batzuetan, hala nola D'Orsaiy Museoan.

KONTSULTATURIKO WEB-ORRIAK:

*Degasen biografia*
http://usuarios.multimania.es/degasymonet/newpage1.html [2010/03/05]

*Famous Artists Gallery: Edgard Degas*
http://www.famousartistsgallery.com/gallery/degas-do.html [2010/03/05]

*Thyssen-Bornemisza museoa*
http://www.museothyssen.org/thyssen/ficha_artista/165 [2010/03/05]

# Proiektu dokumentala. Espainieraren historia denbora lerro digital baten bitartez emana

Silvia González Goñi
*Gaztelania eta Literatura irakaslea*

## Proiektuaren azalpena

Curriculum ofizialean, DBHko 2. mailan Gaztelania eta Literaturari dagokionez, aurreikusitako edukien barnean, Espainiako eleaniztasunaren ikasketa sartzen da, eta horrela ageri da, era berean, nire ikastetxeko, Zangozako Sierra de Leyre BHIko Hizkuntza eta Literatura Departamentuak bigarren hezkuntzako ikasturte honetarako diseinaturik duen programazio didaktikoaren baitan.

Ikasleen eskura jarri nituen testuliburu eta ohar osagarrien bitartez, gaiaren ezaugarri nagusiak ikasi ziren (hizkuntz aniztasuna, Espainiako hizkuntzen jatorria, espainieraren bilakaera aro historiko desberdinetan, hizkuntza desberdinek Espainiari eginiko ekarpenaren balorazio kulturala).

Gaiaren ikuspegi orokorra egin ondoren eta kontzeptu nagusiak ezagutuz gero, ikasleei proposatu nien ikerketa lan bat egin zezaten, espainieraren historian izandako gertakizun desberdinak modu bisualean eta orokorrean biltzeko helburuarekin, ikerlanaren emaitza gisa.

Ikastetxeko baliabide digitalez eta gelan irakasgairako zegoen blogaz baliatuz (www.defarfanias.blogspot.com), sekuentzia didaktikoa diseinatu nuen ikasleek beren azken lana aurkez zezaten Timerime izeneko 2.0 tresnaren bidez, zeinek aukera ematen baitu online motako denbora lineak sortu eta argitaratzeko eta testuak ez ezik irudiak eta bideoak ere txertatzeko.

## • Helburuak

Proiektuaren helburuak hauek ziren:

- Web-orri desberdinez eskuratutako informazioa bilatu, hautatu eta antolatzea.
- Talde lana sustatzea.
- Espainieraren historia modu eraginkor eta parte-hartzailean ikastea.
- Espainiako eleaniztasuna balioestea.
- 2.0 tresna desberdinak eta multimedia fitxategiak erabiltzea.
- Autonomia pertsonala eta ikasten ikastea bultzatzea.
- Ikaskuntza prozesuan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak, IKTak, modu eraginkorrez erabiltzea.

## • Denborak finkatzea eta esparrua antolatzea

Ikerketa proiektua 2. ebaluazioaren hasieran garatu zen, halaxe baitagokio gure urteko programazioan unitate didaktikoen banaketaren arabera. Ordurako, ikasleak trebatuak zeuden ikasgelako blogarekin ez ezik, baita talde lanean elkarrekin aritzearekin ere. Lehenengo ebaluazioan zehar, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak, IKTak, eskuratuz joan ziren era autonomoan erabiltzeko behar diren trebetasunak, informazioaren bilaketa, sailkatze eta prozesamenduan, eta hori lagungarri izan zitzaien sekuentzia didaktikoaren prozesuan.

Ikerketa baino lehen bi saio egin ziren ohiko ikasgelan, ikasleei unitate didaktikoari dagozkion edukiak erakusteko.

Gainerako saioak (lau guztira) informatika gelan burutu ziren. Hoberena baldin bazen ere, lan erritmoa ez haustearren, lau saioak egun jarraituetan egitea, informatika gelan ordu faltagatik saio bakoitza astean behin egin beharra izan zen, eta hori zela eta, proiektak hilabete iraun zuen.

Ikaskuntza erritmo desberdinak eta ikasleen aniztasuna kontuan hartuz, talde batzuk denbora gehiago behar izan zuten lana bukatzeko, hortaz, denbora puska bat eman zuten lana etxean aitzinatzeko, eta horretarako nire laguntza eta aholkularitza izan zuten posta elektronikoaren eta Tuenti-aren bitartez.

## • Taldekatzeak

Lehenik eta behin ikasle taldeak antolatu nituen. Jarduera aurreikusia zegoen elkarlan gisa, zeinean eginbeharrak banatu behar baitziren eta aho batezko akordioetara iritsi; horren kariaz, laukoteka elkartu nituen. Baliabide informatikorik gabe eta ordenagailu bana izatea ezinezkoa zenez gero, ezinbestean talde bakoitza bi bikotetan zatitu beharra izan genuen ordenagailua partekatzeko. Beraz, ikasleek lan banaketa berrantolatu beharra izan zuten, halatan non 4 ikaslez osatutako talde bakoitzak denbora lerro berbera bete zezaten, baina, besoz beso lan eginez, ezarritako urrats guztiak bete zitezen.

## • Jardueren hurrenkera

Ikerlana burutzeko, informatika gelako jardueren hurrenkera honela izan zen:

Lantaldeak finkaturik gelditu zirenean, ikasle bakoitzak, bakarka, bere USBan nik diseinatu eta online dokumentu gisa Google Docsen kokaturiko fitxa bat deskargatu zuen, barnean jarduera batzuk zituena, informazioa web-orrien bitartez bilatzera, sailkatzera eta antolatzera bideratuak. Proposaturiko ikerlanak saihestu nahi du betiereko ebaki-itsatsi hura, horregatik lerroka arautua dago jarduera jakin batzuen bidez, informazioaren bilaketa gidaturako eta ondorengo tratamendurako.

Online dokumentuak taula bat dakar espainieraren eraketan izandako aro historiko desberdinen datekin, ikasleek osatu beharrekoa zenbait daturekin:

1. Gertaera historikoaren izena (online dokumentu berean ematen dena, baina zuzena ez den ordenan).
2. Aro bakoitzari buruzko informazio gehigarria, proposatzen diren web-orri batzuren artean bilatu beharko dutena.
3. Aro bakoitzari dagokion hitz edo esapide arrotzaren izena.
4. Lau hitz, aro historiko bakoitzean eragina izan duen hizkuntzatik datozenak.



| FECHA | ACONTECIMIENTO HISTÓRICO | INFORMACIÓN ADICIONAL | NOMBRE DEL EXTRANJERISMO | 4 TÉRMINOS |
|---|---|---|---|---|
| 600 a.C. | | | | |
| S.III a.C. | | | ...... | |
| S. V | | | | |
| 711-1492 | | | | |
| S.XI | | | ...... | |
| S. XIII | | | | |

https://docs.google.com/document/d/1GdH_nwiPSJcm0YaYu6CYqf1z7nF7XAPERXIIH6RebJE/edit?hl=en#

Informazioa biltzeko eta horren sailkapena eta tratamendua egiteko ezarritako eskakizunetara egokitze aldera, informatika gelan saio oso bat egin beharra izan zen, eta are, talde batzuek etxeko lanarekin osatu behar izan zuten.

Hurrengo jarduera izan zen espainieraren historian izandako aro bakoitzari dagozkion irudien eta multimedia fitxategien hautaketa egitea, gero prestatuko zen online denbora linean sartzeko. Ikasleek berek, jarduera azkarrago burutzearren, beren artean banatu zituzten lan guztiak.

Bildutako informazioa eta multimedia fitxategiaren erakusgaia prestaturik, ikasle taldeak hasi ziren nork bere alegiazko ardatz kronologikoa sortzen. Aplikazioa erabiltzea erraza izan arren, tutoretza labur bat moldatu nuen TimeRimen kontu bat sortzerakoan eta denbora linea prestatzerakoan eman beharreko urratsen gida izan zezaten.




https://docs.google.com/present/view?id=dfvsg9wm_20hqf6g5dx

Bi saiotan zehar, ikasleak, nor bere taldean, denbora linea moldatzen aritu ziren, bildutako informazioa eta hautaturiko multimedia elementuak erabiliz.

## BALIABIDEAK

Ikerketa lan bat izanik, ikasleek, beren denbora linea sortzeko behar zuten informazioa atera beharrez, iturri desberdinetara jo beharra izan zuten. Horretarako, alde batetik, irakasgaiaren testuliburua erabili zuten (Anaya argitaletxea) eta, bestetik, web-orrietarako lotura zenbait, zegokion informazioarekin:

http://www.materialesdelengua.org/LENGUA/historialengua/evolucion-castellano/etapas.pdf

http://roble.pntic.mec.es/~msanto1/lengua/1origen.htm

http://www.google.es/url?sa=t&source=web&cd=19&ved=0CFYQFjAIOAo&url=http://mundodeletras.wikispaces.com/file/view/ORIGEN%2BY%2BEVOLUCI%25C3%2593N%2BDEL%2BCASTELLANO.ppt&rct=j&q=evolucion%20castellano&ei=CYxZTcfWKpSA4Qauo_H0Bg&usg=AFQjCNGhPMMT9FZx7WCX4uk0N8L5zRilaA

http://www.vaucanson.org/espagnol/linguistique/lenguas_hist_esp.htm

http://es.wikipedia.org

## • Emaitzak eta azken balorazioa

Hauek dira ikasle taldeen emaitzetako batzuk espainieraren historiari buruzko denbora lerroa prestatzerakoan.

Azken balorazio orokorra positiboa izan da, ikasleek ikerlan bat burutzen asmatu baitute iturri desberdinetatik dokumentazioa eskuratuz. Gai izan dira eskatzen zitzaienari dagokion informazioa hautatzeko, irizpide desberdinen arabera antolatzeko eta horrekin azken produktu pertsonalizatu bat sortzeko. Halaber, era bateko eta besteko formatuak biltzen ikasi dute (testuak, irudiak, bideoak) erreferente komun batez, eta horrek lanari batasun bisual handiagoa ematen dio.







http://defarfanias.blogspot.com/2011/03/la-historia-del-espanol-traves-de-una.html

Elkarrekin eginiko lanari dagokionez, esan behar da laukoteka lan eginez, bi ordenagailutan banaturik, lan banaketa beren artean eta beren kabuz antolatu behar izan zutela. Bi taldetan lan egitea aitzaki ederra izan da alferrenak beren ikaskideen ahaleginean ezkutatzeko, jakinagatik ere jarriko zitzaien nota indibiduala izanen zela eta batbederaren lanari zegokiona. Gainerakoan, haatik, talde lana lagungarri izan da eginbeharra modu eraginkorragoan burutzeko eta iritziak eta ideiak, azken emaitza hobetu dutenak, elkarrekin partekatu eta trukatzeko.

ANEXO IV

# Orfeo eta euridizeren mitoa

Victoria Elias

*Egipton liburutegiak arimaren erremedioen altxorra zirela esaten zen. Halaxe zen, izan ere, haietan sendatzen baitzen ezjakintasuna, eritasunik arriskutsuena eta beste gainerakoen sorburua.*

**Jacques-Benigne Bossuet,** Frantzia 1627-1704

## 1. Proiektuaren azalpena

Proposatzen den proiektu dokumentala **kontakizun mota bat, mitoa**, aztertzea izanen da, ondorengo hau, hain zuzen ere: *Orfeo eta Euridizeren* mitoa, eta haren eragina Literaturan, Margolaritzan, Eskulturan, Musikan eta Zineman.

Gero, **mitoaren berridazketa** eginen da, ipuin-kontalari gisa, ondoren antzeztua izan dadin. Beste talde batzuetako ikasleentzat, edo, bai eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat ere, **antzezpen** bat prestatuko da.

Lan hau DBHko 4. mailako ikasleentzat pentsatu bada ere, 3. mailakoekin edo, bai eta DBHko 1. eta 2. mailakoekin ere egiterik bada.

## 2. Parte hartuko duten ikasleak eta irakasleak

DBHko 4. MAILAKO IKASLEAK

Barnean hartzen diren arloak: Gaztelania eta Literatura. Proiektu hau Gaztelania eta Literatura departamentuan prestatu denez gero eta, kasu honetan bezala, gai bakar batetik abiatuta, talde bakoitzak sail desberdinak landu ditzake; baina, adierazi den bezala, departamentu batzuen artean ere moldatzen ahal da, eta, kasu honetan, lanaren banaketa honakoa zatekeen:

- **Gaztelania eta Literatura Departamentua.** Mito hau irakurriko da Ovidiok egin zuen bertsioari jarraikiz, eta mito berau gaitzat hartzen duten kontakizunezko beste testu batzuk "ipuin-kontalari" antzeztu bihurtuko dira.
- **Klasikoak Departamentua (latina eta grekoa).** Presta dezake Mitologia eta Literatura grekoa eta erromatarra.

- **Latinaren Departamentua.** Mitoaren itzulpena egin daiteke.
- **Plastika Departamentua.** Antzezpenerako materiala sortuko du; kolorearen eta sinbologiaren erabilera.
- **Gizarte Zientzien Departamentua.** Marrazkigintzaren ikasketa, zeramika grekotik hasi eta gaur egunera artekoa; mitoa aintzat hartu duten marrazkigintza mugimendu desberdinei eta marrazkilariei buruzko ikasketa.
- **Musika Departamentua.** "Orfeoren mitoa musikan" gaiaren informazioa bilatzea, egileak eta obrak; mitoari egokitzen zaion musika bilatzea.
- **Gorputz Hezkuntza Departamentua.** Koreografia bat prestatzen ahal du.

## 3. Helburuzko jarduerak, abiapuntutzat hartzen direnak

Ikasleentzat munta handiko kontua da irudien mundua, hori dela eta, *Ghost* filmaren emanaldiarekin hasiko da, Jerry Zuckerrek zuzendua. Horren bidez ikasleak **narrazioaren** gaian sartuko ditugu eta aukeratutako mitoaren gaiarekin harremanetan jartzen: amorio ezinezkoa.

Horrezaz gain, narrazioaren garrantzia adierazteko, web-orri batzuk ikuskatuko dira haitzuloetako pinturak ikusi ahal izateko (ene iritziz, aurreneko narrazioak):

http://web.educastur.princast.es/proyectos/grupotecne/asp1/investigacion/vermensajebbb.asp?idmensaje=3475

http://femecv.blogspot.com/2010/08/respetar-las-pinturas-rupestres.html

http://www.recursosacademicos.net/web/2010/04/03/arte-paleolitico/

http://www.arqhys.com/fotos/fotos-de-pinturas-rupestres.html

Mitoak kontakizun mota batzuk dira eta horiek ulertzeko Anaya argitaletxeak editaturiko Ovidioren *Metamorfosietako* mito batzuk irakur ditzakegu, gure ikasleen adinerako egokituak. Bestalde, Mitologiako liburu batzuk ere begizta daitezke, anitz eta arrunt desberdinak baitira.

Zerbait ulertzeko garrantzi handikoa da ikasleek ezaguerak "bizi" ahal izatea, horregatik, ez da hoberik historia bat asmatu eta ikaskideei kontatzea baino.

## 4. BALIABIDE DOKUMENTALAK

### Zinema

- *Ghost* dirigida por Jerry Zucker.

### CD-Rom

- *Age of mitologhy* (juego de ordenador sobre mitología griega)

### Musika

- Monteverdi, *L'Orfeo, Favola in Musica.*
- Gluck, *Orfeo ed Euridice.*
- Haydn, *L'Anima del Filosofo (Orfeo ed Euridice).*
- Offenbach, *Orphée aux enfers.*

### Irakurtzeko liburuak

- Ovidio, *Metamorfosis*, Anaya Clásicos a medida 2007, Madril.
- Esteban, Alicia. Mercedes Aguirre, *Cuentos de la mitología griega*, I – V.
- Hainbat egile, *Antología de la literatura latina,* Alianza argitaletxea, Madril, 2001.

### Kontsulta liburuak

- Calero Heras, José, *Literatura española y universal*, Octaedro arg.
- Fernández de Mier, Emilia.-Felix Piñero (eds.), *Amores míticos,* Ediciones Clásicas, 1999, Madril.
- Fields, Vivian, *Grandes amores de la mitología griega,* EDIMAT 2007 Madril.
- Hernández de la Fuente, David, *La mitología contada con sencillez*, Maeva, S.A arg., 2005, Madril.
- Houtzager, Guus, *La enciclopedia de la mitología griega,* Libsa arg., 2004.
- León, J. J., *Literatura universal. Teoría y textos*, Port Royal, Granada, 1999.
- Martín Triana, José Mª, *El libro de la ópera*, Madril, 1992, Alianza Editorial.
- Moormann, E. M. eta Vitterhoeve, W., *De Acteón a Zeus: temas sobre la mitología clásica en la literatura, la música, las artes plásticas y el teatro*, Akal, 1997, Madril.
- Richepin, Jean, *Historia de la mitología griega ilustrada*, Edicomunicación, 2002 Bartzelona.

## Hiztegiak

- Grimal, Pierre, *Diccionario de mitología griega y romana,* Paidos, 1981, Bartzelona.
- Honegger, Marc, *Diccionario de compositores de la música clásica,* Espasa-Calpe, 2004, Madril.
- Pellegrino, Francesca eta Federico Poletti *Diccionario de arte. Episodios y personajes de la literatura,* ELECTA, 2004, Madril.
- RAE, *Diccionario de la Lengua española*, Madril: Espasa, 1997 (21. ed.).

## Entziklopediak

- *Enciclopedia Larousse 2000*, Planeta arg., Bartzelona, 1998.
- *Gran Enciclopedia Temática Planeta,* Planeta arg., Bartzelona, 2003.
- *Historia Universal del Arte*, Planeta arg., Bartzelona, 1993 2. ed.
- Riquer, Martín de; Valverde, José Mª *Historia de la Literatura universal*, Planeta arg., Bartzelona, 1991 2. ed.
- *Los diosese de la Música*, Planeta arg., Bartzelona, 1993 2. ed.
- *Enciclopedia multimedia,,* Planeta arg., Bartzelona, 2006.

## INTERNET

## Web-orriak informazioarekin

- http://es.wikipedia.org/wiki/Mitolog%C3%ADa_griega
- http://es.wikipedia.org/wiki/Orfeo_negro
- http://es.wikipedia.org/wiki/Orfeo_y_Eur%C3%ADdice_(1762)
- http://florenciagar.lacoctelera.net/post/2009/05/25/la-mitologia-fuente-inspiracion-clasica
- http://historiayamantes.blogspot.com/2007/08/orfeo-y-eurdice.html
- http://lienzos.blogspot.com/2007/04/orfeo-el-primer-msico.html
- http://sepiensa.org.mx/contenidos/2007/l_orfeo/orfeo_1.html
- http://www.filmaffinity.com/es/film172778.html
- http://www.filomusica.com/filo13/gluck.html
- http://www.hispanosnet.com/diccionarios_online/diccionarios_arte/mitologia_griega_romana/
- http://www.pixelteca.com/apuntes/orfeo/textos.html
- http://www.scielo.cl/scielo.php?pid=S0718-09342003005300001&script=sci_arttext
- http://www.taringa.net/posts/apuntes-y-monografias/8970656/Orfeo-_Mitologia-Griega_.html
- http://www.ucm.es/info/especulo/numero40/miorfeo.html
- http://www.uqtr.ca/teatro/teapal/TeaPalNum02Rep/9JosaLambea.htm
- http://www.weblaopera.com/articulos/arti67.htm
- http://www.weblaopera.com/historia/histo2.htm

### Web-orriak literatura testuekin

- http://belpaese2000.narod.ru/Teca/Quattro/poliz/fabu.htm
- http://es.wikisource.org/wiki/Si_quejas_y_lamentos_pueden_tanto
- http://puedespasar.blogspot.com/2007/11/dichoso-es-cualquier-casado.html
- http://www.canalsocial.net/GER/ficha_GER.asp?id=2807&cat=biografiasuelta
- http://www.hs-augsburg.de/~harsch/anglica/Chronology/14thC/SirOrfeo/orf_text.html
- http://www.los-poetas.com/h/pedro1.htm

### Irudien web-orriak

- http://cendrix.wordpress.com/2007/04/19/mito-orfeo-y-euridice/orfeo-sacando-a-euridice-del-hades/
- http://esculturasantiguas.juegofanatico.cl/rodin.htm
- http://www.artehistoria.jcyl.es/genios/cuadros/12915.htm
- http://www.artehistoria.net/frames.htm?http://tienda.artehistoria.net/tienda/banco/cuadros/5283.htm
- http://www.uco.es/~ca1lamag/Galerias/Teogonia.htm

### Bideoak linean

- http://www.youtube.com/watch?v=AnXSNiQn9Wk
- http://www.youtube.com/watch?v=-jAfA5PUuXc
- http://www.youtube.com/watch?v=G7f-J6A9m3I
- http://www.youtube.com/watch?v=VWYu2OYWphU
- http://www.youtube.com/watch?v=INAxrpSwm6M

### Musika linean

- http://blog.educastur.es/musicaymitologia/2010/05/02/opera-y-mitologia-i-barroco/
- http://blog.educastur.es/musicaymitologia/2010/05/03/opera-y-mitologia-iii-romanticismo/
- http://blog.educastur.es/musicaymitologia/2010/05/04/opera-y-mitologia-iv-opera-en-espana/
- http://opera.stanford.edu/operas.html
- http://revistaaxolotl.com.ar/soyyo12.htm
- http://revistaaxolotl.com.ar/vvocce03.html
- http://www.filomusica.com/filo42/orfeo.html
- http://www.filomusica.com/opera.html
- http://www.grecotour.com/grecia-grecia/musica-griega.htm
- http://www.monografias.com/trabajos10/oper/oper.shtml
- http://www.scielo.org.ar/pdf/circe/n14/n14a03.pdf
- http://www.sinfoniavirtual.com/revista/010/opera_para_todos_orfeo.php
- http://www.taringa.net/posts/apuntes-y-monografias/8970656/Orfeo-_Mitologia-Griega_.html

## 5. Informazioaren tratamendua eta analisia

Ikasleek iturriak landu behar dituzte, informazio zuzena bilatu eta datu desberdinak erlazionatu. Aipatu baliabideetan aurki daitezke, nahiz eta, bistan da, bakarrak ez diren. Baina, kontuan izaten badugu DBHko 4. mailako ikasleak direla, ene ustez komeni da informazio bilaketan libertade osoa ematea. Beste mailakoekin, zuzendaritza hurbilagoa beharko da.

Gomendatzen zaie fitxekin lan egin dezatela, zeinetan erlazionaturiko datuak ipini behar baitituzte.

Zati desberdinen arteko lotura ulertu ahal izateko, mapa kontzeptualak egin beharko dituzte.

Dagozkion irudiak bilatu, testua era egokian maketatu.

Bakoitzak bere PDIa, hots, Proiektu Dokumental Integratua, sortzen du, nork bere hitzak erabiliz; beraz, azalpen testua lantzen da. Ondoren, gaiari buruz ahozko adierazpena eginen diete ikaskideei. Horretarako diapositibez balia daitezke.

Azkenik, gainerako ikaskideen edo lehen hezkuntzako ikasleen aitzinean "antzeztuko" den mitoa berridatziko da; era horretan, narrazioa landuko dugu, haren ezaugarriak eta osagaiak, modu teorikoan soilik ez, baita praktikoan ere. Era berean, antzerki generoa eta haren oharpenak aipatzen dira.

Ikasgelan gauzatzen diren saiakuntza eta azalpenen bidez, ahozko hizkuntza modu sistematikoan lantzen da.

## 6. Aintzat hartu beharreko antolakuntza aferak

Lan hau gai bakar batetik abiatuz burutzen badugu, taldeak eratuko dira, gehienez bost ikaslek osatuak, eta bakoitzak gai bat aztertuko du –literatura, marrazkigintza eta eskultura, musika, zinema...– eta, gero, egindako lana guztien artean adostuko dute.

| IKASGELAKO KUDEAKETA | JARDUERA MOTAK | KOKAPENA |
|---|---|---|
| Taldea | Informazioa bilatzea | Informatika gela / liburutegia |
| Bakarkakoa | Bildutako informazioa irakurtzea | Ohiko ikasgela |
| Taldea | Informazioa adostea | Ohiko ikasgela |
| Bakarkakoa | Lanaren garapena | Ohiko ikasgela, etxea |
| Taldea | Power Point prestatzea | Informatika gela |
| Taldea | Ahozko azalpena | Ohiko ikasgela / ikus-entunezkoen aretoa |

## 7. Erabiliko diren Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) materialak eta tresnak

- Aldez aurretik zehazturiko irakurketa liburuak.
- Irakasleak prestaturiko testuen antologia.
- Koadernoa.
- Paper orriak.
- Ordenagailua.
- USBa, Interneten bilatutako informazioa eta lanak gordetzeko.
- Word, publisher eta Power poin motako Ofimatika programak erabiltzen dira.
- Internet eta posta elektronikoa ikasleen eta irakasleen arteko komunikaziorako.

## 8. Proiektuaren ebaluazioa

IKASLEEN IKASKUNTZA EBALUATZEKO TXANTILOIA

| Izen-deiturak: | | |
|---|---|---|
| Data: | Maila: | Taldea: |

Proposatu diren testuen aitzinean ikaslearen jarduera aktiboa da ala pasiboa?

.....

Galdera interesgarriak egiten ditu?

.....

Testuak aldez aurretik dakienarekin erlazionatzen ditu?

.....

Testuak errazak ala zailak iruditzen zaizkio?

.....

Jarduera interesgarria iruditu zaio?

.....

Edukien hurrenkerak ongi taxutuak daude?

.....

Lan egiteko eta ikertzeko teknika berriak ediren ditu?

.....

Zer iruditu zaio interesgarriena? Zergatik?

.....

Zein izan dira jarduera zailenak?

.....

Zein jarduera kenduko luke? Zergatik? Zein sartuko luke?

## IDAZLANA EBALUATZEKO TXANTILOIA

| Izen-deiturak: | | |
|---|---|---|
| Data: | Maila: | Taldea: |
| Proiektua: | | |

| | OSO ONGI 4 | ONGI 3 | HALA-HOLA 2 | GAIZKI 1 | OSO GAIZKI 0 |
|---|---|---|---|---|---|
| ▸ Itxura egokia izatea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Aurkibidea izatea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Bibliografia eta web-orriak agerraraztea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Oharrak jartzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Iturriez modu egokian baliatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Egokitzapena** | | | | | |
| ▸ Diskurtsoak komunikatzeko asmoa islatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Informazioa ematea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Erregistroa hartzaileari egokitzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Erregistroa diskurtso osoan barna mantentzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Elementu grafikoak, ikonikoak, tipografikoak...egokiro erabiltzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Koherentzia** | | | | | |
| ▸ Diskurtsoa egituratzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Azalpenean informazioa modu logikoan taxutzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Lana modu antolatuan eta argian eratzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Lerroalde bakoitzean ideia desberdina garatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Kohesioa** | | | | | |
| ▸ Konektoreak zuzen erabiltzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Hiztegia** | | | | | |
| ▸ Hitz egokiak erabiltzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Sinonimoak, antonimoak... jartzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Zernahitarako hitzez baliatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Zuzentasuna** | | | | | |
| ▸ Puntuazio marka oinarrizkoak erabiltzen jakitea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Ortografia akatsak egitea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Akats lexikoak, sintaktikoak, semantikoak... egitea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

OHARPENAK

NOTA:

# AHOZKO ADIERAZPENA EBALUATZEKO TXANTILOIA

| | | |
|---|---|---|
| Izen-deiturak: | | |
| Data: | Maila: | Taldea: |
| Proiektua: | | |

| | OSO ONGI 4 | ONGI 3 | HALA-HOLA 2 | GAIZKI 1 | OSO GAIZKI 0 |
|---|---|---|---|---|---|
| ▸ Diskurtsoa planifikatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Lana aurkeztea. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Testua buruz ikastea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Ikaskideen galderei erantzutea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Egokitzapena** | | | | | |
| ▸ Diskurtsoan komunikatzeko asmoa agerraraztea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Informazioa ematea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Erregistroa diskurtso osoan barna mantentzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Erregistroa hartzaileari egokitzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Ahozkoa ez den komunikazioa egokiro maneiatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Ahozko adierazpideak egoki erabiltzea: keinuak, ahozkerak, motrizitatea. | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Material lagungarria azalpenarekin bat etorriz maneiatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Koherentzia** | | | | | |
| ▸ Diskurtsoa egituratzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Azalpenean informazioa modu logikoan taxutzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Perpausak eta lerroaldeak modu egokian bereiztea etenaldien bitartez | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Azalpena modu antolatuan eta argian eratzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Kohesioa** | | | | | |
| ▸ Diskurtsoari dagokion doinua erabiltzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Doinu egokian hastea eta bukatzea testu bat | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Doinu bidez nabarmentzea galdera eta harridurak | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Testu tipologia aldatzen denean doinuan sumatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Hiztegia** | | | | | |
| ▸ Hitz egokiak erabiltzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Sinonimoak, antonimoak,... jartzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Zernahitarako hitzez baliatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| **Zuzentasuna** | | | | | |
| ▸ Ahoskera garbia eta entzuteko modukoa erabiltzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Bokalizatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Akats lexikoak, sintaktikoak, semantikoak, .... .egitea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

OHARPENAK

NOTA:

## MAPA KONTZEPTUALAREN EBALUAZIORAKO TXANTILOIA

| | | |
|---|---|---|
| Izen-deiturak: | | |
| Data: | Maila: | Taldea: |
| Proiektua: | | |

| | OSO ONGI 4 | ONGI 3 | HALA-HOLA 2 | GAIZKI 1 | OSO GAIZKI 0 |
|---|---|---|---|---|---|
| ▸ Mapa kontzeptual egokia eta osoa egitea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Kontzeptua ulertzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Kontzeptu nagusi guztiak identifikatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Kontzeptuak erlazionatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Zuzen hierarkizatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Lotura zuzenak aplikatzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Hizkera teknikoa eta argia erabiltzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |
| ▸ Terminologia zuzen erabiltzea | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ | ☐ |

OHARPENAK

**NOTA:**

# TALDE LANA EBALUATZEKO TXANTILOIA

| | | |
|---|---|---|
| Izen-deiturak: | | |
| Data: | Maila: | Taldea: |
| Proiektua: | | |

| | BETI 4 | IA BETI 3 | BATZUETAN 2 | IA INOIZ ERE EZ 1 | INOIZ ERE 0 |
|---|---|---|---|---|---|
| ▸ Agindutako lan guztiak betetzea | | | | | |
| ▸ Taldean eginkizunak koordinatu eta modu orekatuan banatzea | | | | | |
| ▸ Taldeak eskurarazi edo bildutako informazioa era egokian maneiatzea | | | | | |
| ▸ Elkarlanean aritu eta parte hartzea modu erakinkorrez, ideiak, iradokizunak eta iritzi berriak ekarriz | | | | | |
| ▸ Aukera guztiak baliotsuak eta onargarriak diren heinean balioetsi eta errespetatzea | | | | | |
| ▸ Jarrera irekia eta gogoetatsua izatea, erabakiak modu arrazoizkoan hartzeko eta kritika eraikitzaileak egiteko | | | | | |
| ▸ Proiektua ordenan eta garbi burutzea, ertzak eta agindutakoak gordez eta modu irakurgarrian eta argian idatziz | | | | | |
| ▸ Ahozko azalpenak ordenan eta argiro egitea | | | | | |
| ▸ Hitza hartzeko txandak errespetatzea ahozko azalpenetan | | | | | |
| ▸ Taldeak ikaskidearen azalpena sustengatzea | | | | | |

BESTELAKO OHARPENAK

NOTA:

Lan giroa:

Harreman pertsonalak:

Zailtasunak:

## IRAKAS-IKASKUNTZA PROZESUA
## EBALUATZEKO FITXA

| Maila: | Taldea: | Ebaluazioa: |
|---|---|---|
| IRAKASGAIA: | | |

Ondoko orria bete behar duzu oraingo honetan gaiari buruzko ebaluazioa egiteko. Egin ezazu modu positibo, zintzo eta arduratsuan; saihestu kritika pertsonalak. Iritzi orokor bat ere eman behar duzu.

Atal bakoitza 1etik 10era bitarte puntuatu behar duzu.

Azken bi atalak zuriz daude, zuretzat garrantzitsuak diren xehetasunen gaineko iritzia jar dezazun.

- [ ] Irakaslearen puntualtasuna.
- [ ] Ikasleen puntualtasuna.
- [ ] PDIn lortutako seriotasun eta diziplina.
- [ ] Motibazioa eta interesa ikasleengan.
- [ ] Lan jarraibideen ulermen maila.
- [ ] Irakaslearen arreta maila.
- [ ] Adierazpenen gardentasuna.
- [ ] Eskola antolatzeko modua.
- [ ] Lan erritmoa.
- [ ] Ikasleen eta irakaslearen arteko harremanak.
- [ ] Ebaluazio sistemaren ulermen eta onarpen maila.
- [ ] Lanaren ebaluazioa argi dago.

**PUNTUAZIO OROKORRA** [ ]

Ikasgelako lana hobetu ahal izateko idatz itzazu bizpahiru proposamen:

PDI











## sorta **Urdina**

**Blitz Hezkuntza Departamentuan**

1. **Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa**
   Hobetzeko gakoak
2. **Eskolako liburutegia nola antolatu**
   Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. **Sailkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumetan**
   Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiz gai antolatzeko jarraibideak
4. **Eskola liburutegiaren informatizazioa. ABIES 2.0 programa**
5. **Eskolako liburutegiko funtsak eta ikastetxeko irakurketa planak**

## sorta **Berdea**

**Blitz Eskolan**

1. MARIANO CORONAS
   **Eskolako liburutegia**
   Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. VÍCTOR MORENO
   **Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea**
   Hausnarketak eta proposamenak
3. VILLAR ARELLANO YANGUAS
   **Liburutegia eta ikaskuntza autonomoa**
   Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta baliatzeko gida didaktikoa
4. Mª JESÚS ILLESCAS
   **Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu**
   Erabiltzaileak iprestatzen
5. C.P. «ÁLVARA ÁLVAREZ» de Falces
   **La formación de usuarios y el uso de la información**
   Una experiencia didáctica en la biblioteca del Colegio Público de Falces (Navarra)
6. ROSA PIQUÍN CANCIO
   **Proiektu dokumental integratuak**

## sorta **Horia**

**Blitz irakurtzearen alde**

1. **Ulermenezko irakurketa eskola curriculumean**
   Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. JESÚS AMADO MOYA
   **Hizkera zientifikoa eta ulermenezko irakurketa zientzien arloan**
3. ÁNGEL SANZ MORENO
   **Ulermenezko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak**
4. VÍCTOR MORENO
   **Zertarako irakurri? Ulertzeko**
5. ÁNGEL SANZ MORENO
   **Irakurmena lantzeko jarduerak nola prestatu**
   Lehen Hezkuntzako 3. Zikloa eta DBHko 1. Zikloa
6. **Nola prestatu ulermenezko irakurketa plana DBH-ko institutu batean**
   Bi adibide praktiko
7. NATIVIDAD IRAIZOZ SANZOL
   FERMÍN M.ª GONZÁLEZ GARCÍA
   **El mapa conceptual: un instrumento apropiado para comprender textos expositivos**
8. VÍCTOR MORENO
   **Ikasleak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz**
9. LUIS IZA DORRONSORO
   **Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan**
10. **Modelo de fondo bibliográfico para una biblioteca escolar de E. Secundaria**
11. MIGUEL ÁNGEL GARCÍA ANDRÉS
    **Irakurtzea eta idaztea Interneten garaian**
    Irakurketaren eta idazketaren analisia eta proposamenak Bigarren Hezkuntzan

## sorta **Gorria**

**Blitz idaztearen alde**

1. PEDRO JIMENO
   **Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan**

## sorta **Laranja**

**Blitz ahozko adierazmenaren alde**

1. ANA MARTÍNEZ MONGAY
   **Nola prestatu ahozko azalpen bat bigarren hezkuntzako arlo guztietan**
2. ANTONIO UNZUÉ UNZUÉ
   **Argumentar para debatir. Una propuesta para todas las áreas de Secundaria**

**BLITZ**
Liburutegiko sagua

**ESKOLAKO LIBURUTEGIKO** BILDUMA